

ELKARRIZKETA: ANTONIO RODRIGUEZ • ESPERIENTZIA: ELIKADURA •
EKARPENA: PALESTINA • GALDEIDAZUE: JOSEBA ETXEBESTE • BILBOKO
ITSASADARRA ITSAS MUSEOA • ATZEKO ATETIK: SARA COZAR

hh
hik hasi

147

4 EURO • 2010EKO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




GAIA

Adimen emozionala

Beste hizkuntza bat

+10 urte



Rita kanpin batera joan da oporrak pasatzera. Ez dago gustura, ez baitu batere atsegin kanpin-denda batean lo egitea. Behin Robinson Crusoeri buruz hitz egin zioten, eta hark uharte galdu batean bizi izandako abenturak errepikatu nahi izango ditu.

RITA ROBINSON

Mikel Valverde

+5 urte



Gizateriaren historian jatorrizko ipuinik bada, Adan eta Eba paradisuari bizi zireneko hura da, maitasun istorio haren kontakizun eleberritua da ipuin hau, ama batek bere alabari kontatua.

Mariasun Landa • Maite Gurrutxaga
IPURTARGIAK PARADISUAN

Gure LITERATURA zutaz mintzo da

www.elkarargitaletxea.com

elkar

+12 urte

**EHUN IPUIN
HITZ GUTXITAN**

Joxan Ormazabal • Jon Zabaleta



Bizitzako kontuak 100 ipuinetan, umorez beteak, pentsatzeko eta gozatzeko. Haurrentzat eta haur izan zirentzat ere egokiak.

Pello Añorga • Jokin Mitxelena
POTTOKO HIPERMERKATUAN

Baserrian bizi da Pottoko, mendi artean. Auzoan, ordea, Hipermerkatu Elefante ireki dute, eta hara doa gurasoekin... Zer egingo du Pottokok hainbeste marka, produktu eta gauza artean?



+8 urte

aurkibidea



8
gaia

ADIMEN EMOZIONALA

Adituek behin eta berriro aipatzen dute gizakiaren garapean eta egunerokotasunean adimen emozionalak duen eragina; eta eskolan ere garrantzitsua ei da sentimenduetan adimentsua izatea.



16
elkarrizketak

ANTONIO RODRIGUEZ

Antonio Rodriguez De Las Heras, unibertsitateko irakaslea ez ezik, Educared prestakuntza zentroko eta Telos teknologia eta informazioaren gaineko ikerketa aldizkariko zuzendaria ere bada.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ADIMEN EMOZIONALA

BESTE HIZKUNTZA BAT

16 elkarrizketa

ANTONIO RODRIGUEZ DE LAS HERAS

MADRILGO CARLOS III UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

25 ekarpenak

Elikadura

27 esperientziak

Elikagaiak lan proiektua: Oiartzungo haur eskolan

30 ekarpenak

Palestina: hezkuntzaren garrantzia

32 galdeidazue

Gizonak, emakumeak eta gorputz heziketa
Joseba Etxebeste

35 berriak

40 nora joango gara?

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa

42 Atzeko atetik

Sara Cozar

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Izaskun Beraza eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez, Matilde Sainz, Karmele Perez Urraza eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Hik Hasik. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-03-17). Kopurua: 3.700 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitaratzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

apirila

Hirueleko ereduak nobedade?



Urteak dira Euskal Herrian hirueleko ereduak saiatzen direla. Berrikuntza garrantzitsuena, behingoz hizkuntza bakoitzarekiko zehazki nahi diren helburuak finkatzea litzateke.

Berrikuntzak bailiran –aurretik sekula jorratu gabeko bideak, alegia–, aurkezten zaizkio hezkuntza komunitateari maiz ereduak eta bestelakoak.

Hirueletasun ereduak jarri nahi dute Nafarroan eta baita Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere. Ekimen berria bailitzan, nobedade.

Lurralde horietan, urteetako eskarmentua dago bi hizkuntza ofizialak eta gutxienez atzerriko bat irakasteko jardunean. Ikastetxe askok eta askok urte horietan guztietan beren ikasleak gutxienez hiru hizkuntzetan trebatzeko saiakera egin dute. Batzuk emaitza hobetoekin eta, beste batzuk, ez hain onekin, jakina denez.

Lapurdikoa, Nafarroa Behereakoa eta Zuberoakoa zenbait ikastetxetan ikasleak hiru hizkuntza ikasten ari dira. Aspalditik, gainera.

Berandu dabilta lau haizetara hemendik aurrera eskoletan ingelesa ikasiko dela esaten ari direnak. Izan ere,

euskal eskola gehienek urteak baitaramatzate ahalegin horretan. Horietatik batzuk, gainera, bere jardunaren gainean hausnartuz, bitartekoak jarritz, langileak egoki prestatuz eta abar eleaniztasunaren bidean sakontzen jarraitu dute, eta jada, laugarren hizkuntza erelantzen ari dira beren ikasleekin.

Proposatzen ari zaigun ereduak, beraz, zer du berrikuntza? Ur handiegitan sartu gabe, esan daiteke berrikuntza nabarmenena hiru hizkuntzei gutxienez bost edo sei ordu eskaintzea dela.

Eta hori, orain arte hezkuntza esparruan egindakoa ikusita oker handia eta sakona dela esan behar da ozen: zertarako eskaini denbora gehiago hizkuntza nagusiari, gaztelerari eta frantsesari, zailtasun eta eragozpen gehiago izango dituzten hizkuntzei baino, euskarari eta ingelesari?

Horrela begiratuta, zentzudunagoa eta eraginkorragoa dirudi zailtasun handiagoak daudenean ahalegina eta

inbertsioa handiagoa izatea! Curriculumeiko gainerako arloetan egiten den bezala.

Hizkuntzen irakaspenaren eta ebaluazioaren auzi horretan guztian berria izango litzatekeena hizkuntza bakoitzarekiko dauden helburuak eta lortu nahi diren gaitasun mailak argi definitzea litzateke: Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoak garbi definitzen ditu: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Zehazten ditu ere haiek ebaluatze-ko tresnak eta irizpideak. Hizkuntzak irakasten diren Europako edozein ikastetxetan erreferentzi horiek erabiltzen badituzte, zergatik ez Euskal Herrian?

Hirueletasunaren bide luzean Euskal Herriko ikastetxeek egiten dutena aintzat hartu eta horrek eman dituen emaitzak, egon badaude eta, aztertu eta bideak zuzentzen eta indartzen erabilibili beharrean, hezkuntzako agintariak abiapuntuan ipini nahi gaituzte, berriz ere.

kronika

Irakasleen lan baldintzak “kaskartu” nahi izatea egotzi diote EILAS, ELA eta LAB sindikatuek Eusko Jaurlaritzari. Sindikatuek jakinarazi dutenez, martxoaren 17an izan zuten bileran Hezkuntza Sailak irakasleen lan itunaren proposamena aurkeztu zuen. Horren bitartez, administrazioak irakasleen lan baldintzak murriztu eta hezkuntza kalitatea “eskastu” nahi duela salatu dute.

Atzera pauso nabarmenenerikoa ordezkapenen arloan antzeman dute. Ordezkoak diren irakasleen lan baldintzak ez direla gainontzeko irakasleekin parekatzen jakinarazi dute sindikatuek. Horrez gain, irakasleei euskarazko prestakuntzan eskaintzen zaizkien aukerak hutsaren hurrengoak direla ere jakinarazi dute. Irakasleen euskalduntze programan, murrizketa «izugarriak» izango direla iragarri dute EILASek, ELAk eta LABek.



Iparraldeko eskola publikoetako sei irakasle postu kendu nahi dituzte

Paueko Akademia Ikuskaritzak sei irakasle lanpostu kendu nahi ditu Ipar Euskal Herriko eskola publikoetan datorren irailerako. Dagoeneko ohikoa bihurtu da udaberrian, eskoletako izen-emate prozeduraren ostean, guraso eta sindikatuek protesta egitea. Aurtengoa, baina, lanpostu murrizketa handiagoa izanen dela salatzen dute sindikatuek. Egoera horren aurrean, guraso elkarteekin biltzen hasi dira dagoeneko Frantziako Hezkuntza agintariei presioa egiteko.

“Euskararen Erakunde Publikoa hezkuntza elebiduna sustatzen hasi zenetik ez dugu horrelako presiorik eza-

gutu baina oraingoan, euskarazko lanpostu bat irekitzen den toki gehienetan frantsesezko bat kentzea proposatzen du Akademia Ikuskaritzak, elebiduntasunaren beharrak kontuan hartu gabe”, salatu du Katti Petrissans hezkuntza publikoko SNUipp sindikatuko ordezkariak.

Mobilizazioak

Lanpostu murrizketa irizpide ekonomikoetan oinarritzen dela salatzen dute sindikatuek, kalitatearen kaltean. Erretretara doazen bi irakasletatik bakar baten lanpostua berritzen dute. Gelak egon behar diren gutxieneko haur kopurua igo egiten da eta, eskola elebidunean euskara hautatu duten haurrek beren saila eduki arren, kurtso bateratuetan kopuru «jasanezinak» egoten direla salatzen dute sindikatuek. “Murrizketen ondorioz, eskola batzuetan, gelako 40 haur batuko dira tenore jakin batzuetan”.

Sindikatuak guraso elkarteekin bildu dira egoera aztertu eta mobilizazioak antolatzeko. Besteak beste, Bardoze, Kanbo, Barkoxe, Amenduze-Una eta Uharte-Hiriko eskolak okupatu dituzte gurasoek. Horrela irakasle postuak galtzeko arriskuaren aurrean beren haserrea erakutsi nahi izan dute.

"Betekada materiala eta anemia sinbolikoko garaiak bizi ditugu. Behin gosearen azotea gaindituta, argal ditugu komunikazioa eta enpatia"

Joseba Azkarraga Etxagibel



Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuko dute maiatzaren 15ean, Iruñean

“Nafarroan euskaraz bizi nahi duen orok, izan dezala horretarako aukera”, horixe baino ez dute eskatzen. *Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea* lelopean euskaldun guztien indarrak batu nahi ditu Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Nafarroan euskarak bizi duen egoerarekin «kezkatuta» eta Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen «mespretxua» salatzeke asmoz, manifestazioa egingo du heldu den maiatzaren 15ean, Iruñean.

Azken hogeitau urteetan, Nafarroan, herritarren ahaleginei esker euskal hiztunek gora egin dutela nabarmendu zuen Oskar Zapata Nafarroako Topaguneko kideak deitzaileen izenean. Besteak beste, Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako joera kritikatu

egin zuen, azken aldiari, kontrako jarrerara hori bereziki bortitza dela nabarmenduz. “Gobernuaren jarrera era ezberdinetan antzematen da, euskarazko komunikabideei lizentzia eta diru laguntzak kenduz, hezkuntza sisteman euskaraz baztertuz edota euskaraz ikasi nahi dutenei diru laguntza urriak emanez”. Gertakari horiek guztiak aintzat hartuta, Nafarroan euskaraz bizitzea ezinezkoa dela salatu zuen. «Euskaraz ahal duen une eta gune guztietan itotzeko ahaleginak egiten ari da Gobernuak».

Atxikimenduak

Horrenbestez, honako eskubideak aldarrikatuko dituzte maiatzaren 15ean Iruñean egingo den manifestazioan: herritarrek euskaraz ikasteko duten eskubidea, salerosketak, publizitatea eta etiketak euskaraz jasotzeko eskubidea, administrazioarekin euskaraz egiteko eskubidea, euskarazko kultur sormenaz gozatzeko eskubidea, telebistaz, prentsez, tokiko hedabideen bidez, irratiz zein Internetez informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea...

Ehundik gora euskaltzalek eta 45 talde inguruk (Administrazioan Euskaraz Taldea, AEK, Aizpea Euskara Elkar-atea, BERRIA, Euskal Herriak Bere Eskola, Emun, Xorroxin irratia, Ttipi Ttapa, IKA edota Sortzen-Ikasbatuaz...) azaldu diote dagoeneko atxikimendua manifestazioari.

Joan den martxoaren 30ean onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak euskaraz eta gaztelania parekatuko dituen Oinarrizko Hezkuntzako curriculum dekretu berria.

Halaber, Euskal Herria terminoaren erabilera "kontzeptu kultural eta linguistikora" mugatu du. Hurrengo ikasturtetik aurrera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako helburuak, edukiak eta ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak zehazten ditu curriculumak.

Dekretu berriak aurreko legealdian Tontxu Camposek (EA) gidatutako Hezkuntza Sailak onetsitakoa bertan behera uzten du, eta hala, euskaraz ez da irakas hizkuntza nagusia izango.

Isabel Celaa Hezkuntza sailburuaren hitzetan euskaraz eta gaztelania "arau hierarkia berdina" izango dute, hau da, parekatuta egongo dira. Gaineratu duenez, hizkuntza ofizialak arautzeko modu hori "indarrean dauden legeekin" bat dator. Dena den, dekretuaren sarrerak honakoa dio: “Euskaraz lehentasuna izan beharko du hezkuntza eremuan; izan ere, hizkuntza ofizial horren ezagutza urriagoa da”. Euskarari “arreta berezia” emango zaiola esan du Hezkuntza sailburuak.

GAIA

Adimen emozionala

Beste hizkuntza bat





Adituek behin eta berriro aipatzen dute gizakiaren garapenean eta egunerokotasunean adimen emozionalak duen eragina; eta eskolan ere garrantzitsua ei da sentimenduetan adimendua izatea. Emozioak lantzen dihardute Tolosako (Gipuzkoa) Laskorain Ikastolan, 2004-2005 ikasturtetik hona. Proiektuaren nondik norakoak ez ezik, irakasleen artean, ikasleekin eta gurasoekin izaten ari diren esperientziak azaldu dizkigute. Kepa Goikoetxea Laskoraingo zuzendariarekin eta Beatriz Ezeiza eta Aitziber Aierdi Orientazio Mintegiko kideekin izan gara.

G



Aitziber Aierdi, Beatriz Ezeiza eta Kepa Goikoetxea

Duela sei urte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez izan zuten Laskorain Ikastolan adimen emozionalaren gaineko proiektuaren berri. Ikastetxetako zuzendaritza taldeei zuzendutako prestakuntza egiteko deialdia jaso ondoren, hiru lagun joan ziren. “Orain ulertu dugu zergatik egin zuten lehengo zuzendaritza taldeentzako deia. Ikastetxetako prestakuntza bideratzeko, ezinbestekoa delako lehendabizi zuzendaritza konbentzitzea”, dio Goikoetxeak. Prestakuntza trinkoa eta luzea izan zen, baina oso interesgarria, eta Laskoraingo zuzendaritza, bederen, guztiz harrapatu zuen. “Txundituta geratu ginen jasotako prestakuntzarekin. Batetik, landutakoak zuen erabilgarritasunagatik, eta, bestetik, joan ginen hiruroi ekarri zigun onuragatik. Bizitza pertsonalerako, harremanetarako... Guztiz praktikoa iruditu zitzaigun, eta eskolan erabiltzeko aukera bazegoela ikusi genuen”. Zuzendaritzako hiru kideak horren pozik eta liluratuta ikusita, gainerako irakasleengan ere piztu zen jakin-mina, eta, lehendabiziko irakasleak prestatzen hasteko aukera iritsi zenean, berehala eman zuten izena. Lehendabizi, hogeit hamar irakasle, eta, gero, beste guztiak. “Baina ez irakasleek bakarrik, idazkaritzakoek, atezainak, jangelakoek... ere jaso zuten prestakuntza. Azken batean, eskola elkarte osoko langileek hartu genuen parte lehenda-

biziko fase hartan”.

Gerora, bigarren fasea heldu zen. “Lehendabiziko prestakuntza amaituta, ikasgeletan lanean hasi behar genuela ohartu ginen”, dio Ezeizak. “Orduan, materialak egiten hasi ginen, uzartzen, ezagutzen genuena aztertzen, begiratzen. Baina, aurrera egin ahala, beste premia bat sortu zen: ikastetxe osoan aplikatu behar bagenuen, koordinazio osoaz arduratuko ziren zenbait pertsona behar genituen”. Horrela, ikastolako lau kidek, zuzendaritzako bik eta orientazio mintegiko beste bik, Gipuzkoako Foru Aldunditik iritsitako beste ikastaro bat egin zuten, Expertis deitzen diotena. “Hori egin ondoren gauzatu genuen ikastetxe osorako adimen emozionalaren proiektua”.

Hain zuzen ere, etapetan antolatu zuten proiektua, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoraino. Ezeizak azaldu duenez, koordinatzaile bat izendatu zuten etapa bakoitzeko, “norbaitek arduratu behar zuelako proiektua ikastetxe osora hedatzeaz”. Horrela, lau koordinatzaileak astean behin elkartzeko eta materialak gainbegiratzeko. Eta, ondoren, astean zehar beste egun batean, etapa bakoitzeko irakasleak bere koordinatzailearekin elkartzeko dira. Azken horrek ikasgeletan egin beharreko lana gidatzen du. Orotara, 115 langile koordinatu behar dira.

Adimen emozionala

Ikasleekin lanean

Baina jasotako prestakuntza guztia nola erabili ikasleekin? Bada, Ezeizak azaldu duenez, hasiera batean tutoretzak baliatu zituzten ikasgeletan lanean hasteko". DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, tutoretzak ez ezik, Etikako orduak ere baliatzen ditugu gai hau lantzeko. Baina, gaur egun, horietatik at, egunerokotasunean ere txertatuta daukagula esan dezakegu". Dena den, etapa bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta Haur Hezkuntzako lan dinamikak ez du zer ikusirik Lehen Hezkuntzan edo DBHn lan egiteko duten moduarekin.

Esate baterako, Haur Hezkuntzan, irakasleak egunero egiten die ongi etorria ikasleei. "Harrera unea deitzen dioguk. Une horretan, adimen emozionalarekin zerikusia duen sarrera egiten da ikasleak biribilean jarrira. Horretarako, gelako espazioa erabiltzen da. Ume bakoitzak nola sentitzen den adierazten du: zer umorez etorri den ikastolara, zein emozio ekarri duen etxetik eta zergatik izan daitekeen, besteak beste". Horrez gain, gelan, Adimen Emozionaleko txokoa dago. Han, aurretik aipatutako jardueren euskarri fisikoak, ormirudiak direla, lantzen ari garen konpetentzia eta trebetasunaren irudi, hausnarketak... Horietako bat emozioen trena izeneko da. Tren horretako bagoi bakoitzak emozio bat dauka, eta ikasle bakoitzak bere izena emozio batekin lotzen du.

"Erabiltzen ditugun tekniketako bat da hori", esan du Aierdik. "Ez dugu ikasturte osoan teknika bera erabiltzen, aldatzea ere garrantzitsua da. Helburua beti da bera, baina hainbat teknika erabiltzen ditugu. Azken batean

hainbat tresnaren bidez, haurrek emozioak identifikatzea da helburua, autoezagutza konpetentzia lantzeko".

Lehen Hezkuntzan, aldiz, lanketa, bereziki, tutoretza orduetan egin da. Egunean zehar, hainbat unetan zein emozio sentitzen dituzten identifikatzeko, lanean jartzen dituzte ikasleak. "Esaterako, oso jarduera polita izaten da egunean zehar ikasleen emozioak nola aldatzen diren ikustea. Taula batean adieraz dezakete. Edota emozio horien intentsitatea ere landu izan dugu. Beharbada haserre sentitzen gara, baina haserre hori amorru bilakatzen da. Pixkana emozio horiek egunean nola aldatzen diren ikusten joatea lan interesgarria da", azaldu du Ezeizak.

Dena den, tutoretza orduetatik kanpo, egunak luzeak izaten dira. "Jo dezagun ume bat matematikako ariketa bat egiten ari dela, eta irakaslea konturatzen dela ez zaiola ateratzen. Ikaslea guztiz blokeatuta dago ariketaren aurrean. Orduan, honelako galderak egin ditzake irakasleak: Zein emozio sorrarazi dizu ariketa horrek? Ez duzu uste, beharbada, emozio horrek ez dizula ariketa hori aurrera eramaten uzten? Azken batean jarrera kontua da, estilo kontua", dio Ezeizak. Beraz, edozein une balia dezake irakasleak emozioak lantzeko. "Irakaslea bera trebatuta dagoenez, errazagoa da. Irakasleek badakite horrelako egoerak identifikatzen. Egoera horiek sumatzen dituzte, eta edozein une izan daiteke egokia horiek bideratzen saiatzeko", gaineratu du Aierdik.

Emozioak ulertzea eta izena jartzea ez omen da horren zaila. Ikasleek, behintzat, nahiko erraz egiten dute ho-



ri. Hurrengo urratsa, ordea, zailagoa da. Nola erregulatu emozio horiek guztiak? Nola bideratu? Zer egin horiekin? Horretarako ere, badaude hainbat teknika: dortokaren teknika, semaforoarena, arnasketak, erlaxazioa, bistartzea... "Teknika horiek guztiak edozein unetan erabil daitezke, baina, horretarako, aurretik landu behar izan dira", dio Aierdik. "Tutoretza orduetan lantzen dira horiek guztiak, eta, beraz, ikasleek badakite nola erabil daitezkeen. Ondoren, zein erabilera mota ematen dieten –hobea edo okerragoa–, ikasleen esku egongo da". Gakoa, Aierdiren hitzetan, helburua zein den jakitea da. Xedea zein den zehaztuta, teknika bat edo beste erabiliko da.

Adimen emozionalak bost gaitasun esparru lantzen ditu: kontzientzia emozionala, erregulazio emozionala, autonomia emozionala, gaitasun sozio-emozionalak eta bizitzarako trebetasunak. Beraz, Ezeizak azaldu duenez, gaitasun bakoitzak trebetasun asko ditu lantzeko, eta horiek guztiak sailkatuta daude. Ondoren, trebetasun horiek jarduera edo teknika zehatzen bidez lantzen dira.



Nola egiten da hori nerabezaroan?

Nerabeen kasuan, bidearen beste er-tzetik hasi beharra dagoela dio Goikoe-txeak. Hau da, lehendabizi, laugarren eta bosgarren gaitasun esparruak lan-du behar dira gazteekin: gaitasun so-zio-emozionalak eta bizitzarako trebe-tasunak. “Ahal izanez gero, gazteari urrutitu duena azaldu behar zaio lehenik. Haitin lurrikara bat izan da, ikusi al du-zu telebistan zer gertatu den? Teorian, berea ez den gai batetik abiatu behar duzu”, azaldu du Laskoraingo zuzen-dariak. “Hitz egiten ari dena nerabea bera da, eta ematen ari den balorazioa berea da, baina uste du kanpoko zer-baiti buruz ari dela. Ondoren, pixkana-ka gerturatzen joatea litzateke gakoa: Zuk nola egingo zenuke? Zuk zer pro-posatuko zenuke egoera horretan? Eta, azkenik, Zu nola sentitzen zara? galde-tu behar zaie”, dio Goikoetxeak. “Lan-tzen dena gauza bera da, baina, nerabe-zaroan, berehala topa dezakezu atea guztiz itxita, norberaren hausnarketa-tik abiatzen baldin bazara. Nerabeza-roa ez da horretarako adin egokiena, ikaslea ez baldin badago lehenagotik ere oso trebatua”, gaineratu du.

Ikasleek aipatutako trebetasun horiek lor ditzaten lanean ari dira buru-belarri Laskorainen. “Hiru ikasturte darama-tzagu proiektua ikasleekin lantzen. Be-raz, orain Batxilergoan ditugun ikasle-ak DBHn hasi ziren adimen emoziona-la lantzen. Zertxobait antzeman daite-ke, baina goiz da oraindik”, azaldu du Goikoetxeak. “Dena den, beharbada zuzendari lanean ari naizelako, adimen emozionala lantzen dutenetik haus-narketarako erraztasun handiagoa du-tela nabaritzen dut. Zerbait gertatu da,

eta ikasleari gertatutakoa argitzeko kontuak eskatzen ari zara... Lan hori duela bost urte baina errazagoa da. Bai-na askoz ere errazagoa! Horrek ez du e-san nahi liskarrak gertatzen ez direnik, baina gertatutakoaren gaineko analisia egiteko gaitasun handiagoa dute: Nik hau egin dut, hark honela erantzun du, ni honela sentitu naiz...”. Hori guztia berria da, eta asko errazten ditu gau-zak”, gaineratu du.

“Beste hizkuntza batean trebatua izatea bezala da”, gaineratu du Aierdik. “Ho-rretan ari gara lanean, eta, pixkanaka, gure ikasleak beste maila batean aritze-ko gai dira”. Hizkuntzaren aldetik na-baritu dute, batez ere, giroa aldatzen ari dela. Aierdiren hitzetan, haur eta gazte-txoek hitz egiteko modua aldatu egin da. “Batez ere, norberaren ezagutzari dagokionez ikusi dugu aldaketa. Baita emozioen gainean hitz egiterakoan ere”.

“Bai, horixe da”, gaineratu du Ezeizak. “Haurrak prestatuago daude. Atse-denalditik igotzen direnean –maiz izaten



dituzte liskarrak atsedendian–, egu-nero galdetzen zaie zer gertatu den. Zergatik egin duzu? Nola sentitu zara? Zein mezu eman diozu zeure buruari? Horrelako galderei erantzuterakoan, nabaritu dugu haurrek askoz ere askea-go hitz egiten dutela. Eta hori da, gure ustez, lehen urratsa”. Dena den, ez dira beti irakasleak izaten zer gertatu den galdetzen dutenak. Ikasleek eurek ere hitz egiten dute emozioei buruz. Ezei-zak beti gogoratzen du pasadizo bat:

“Bigarren mailan oso-oso mugitua zen mutikotxo bat zebilen. Egun batean, idazkaritzara jaitsi zen enkargu bat ematera. Idazkaria han zebilen ezinean, telefonoa jo eta jo ari zen, fotokopiagailua hemendik, atea handik... Erotzeko modukoa. Orduan, mutikotxoak begiratu eta esan zion:

–Idoia, zer gertatzen zaizu gaur? Haserre zaude?

–Bai, gaur haserre nabil. Eginkizun asko ditut eta ezinean nabil–, erantzun zion idazkariak.

–Eta zergatik ez duzu lasaitasunaren txokoa eskatzen? Gure gelan badaukagu. Erakutsiko dizut nola egiten dugun?

Mutikoak, nola egiten zuten erakutsi zion idazkariari, eta, gainera, berari mese-de izugarria egiten ziola azaldu zion. Izan ere, mutiko horrek behar handia izaten zuen, eta askotan joaten zen lasaitasunaren txoko horretara. Ideia, behintzat, guztiz barneratuta zuen ordurako”.

Adimen emozionala

Zer da ikasle ona izatea?



Horrelako pasadizo ugari dituzte. Sarritan, gelan bertan, ikasle batek bestea jotzen du ukondoarekin, eta esaten dio: Urduri zaude, har ezazu arnasa! Ezeizaren hitzetan, teknika horiek eskura dituztelako gertatzen da hori. “Gauza txikiak dira, baina sumatzen ditugu”. Dena den, Aierdik dio haur guztiak ez direla berdinak: “Batzuk gehiago aurreratzen ari dira, beste batzuk gutxiago, baina badoaz, pixkanaka”.

Hala ere, aldaketa Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan nabaritzen dute gehienbat. Goikoetxearen hitzetan, Bigarren Hezkuntzan ezin da esan asko nabaritzen denik. “Kanpotik aldaketa txikia ikusten da. Hau da, autokontzientziarako gaitasun handiagoa dutela esango genuke, analisirako ere bai, eta portaeretan ere kontrol handiagoa dute, baina badute zer landua oraindik. Dena den, pentsatzen dugu, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako horiek gora iristen direnean, gehiago nabaritutako dela aldaketa”.

Prozesu horretan, oso garrantzitsua da

irakaslearen erreferentzia. Ezeizaren hitzetan, irakasleak berak izan behar du emozionalki adimentsua, haur horientzako eredu garrantzitsua hura delako. “Beraz, irakasleekin ere sakon ari gara arlo hau latzen. Indarguneak bizkortu behar ditugu. Ikuspegi baikorra atera. Askotan entzuten dugu hau oso kaxkar dabil, beste hau ez dakit nola eta horrekoak... Oso gauza naturalak izaten dira irakasleen artean, baina, gure hizkuntza ere poliki-poliki aldatzen joan behar dugu. Gure hizkuntza aldatzen goazen neurrian, ziur ikasleari izugarri lagunduko diogula”. Bestalde, Aierdiren ustez, ikasleari beste modu batean begiratzen ere ikasi behar da. “Ezin dugu, soilik, hau edo bestea egin du esan. . Zergatik egin duen pentsatu behar dugu, bere lekuan jarri behar dugu eta izan duen erreakzio horretarako zergatiak hausnartu. Horrela jokatu, gure erreakzioa ikaslearekiko ezberdina izan daiteke. Horregatik, ikasleekin enpatia landu baino lehen, gure artean jarri behar dugu praktikan.

Zer da ikasle ona izatea?

Ildo horretatik, ikasleari dagokionez, beste hausnarketa bat darabilte buruan Laskorainen. Zer da ikasle ona izatea? Zer da benetan adimentsua izatea? Eta arrakasta izatea eguneroko bizitzan? “Howard Gardner-en Adimen anizkoitzen teoriak diotenari helduta, hausnarketa hori egiten dugu irakasleok gure ikasleekin. Beraien indarguneak ikusten saiatzen gara. Denok ez dugu adimen matematikoa edo hizkuntza adimena izan behar! Baditugu hainbat ikasle, beste arlo batzuetan askoz ere emankorragoak direnak”, dio Ezeizak.

“Batzuk musikan dira trebeak, beste batzuk harremanetan, eta artista ugari ere badugu, baina horiek oso gutxi baliosten ditugu. Horixe da gure ikasleekin dugun erronka handiena, eta, bai zuzendaritzatik eta baita orientazio mintegitik ere, lan izugarria dugu egiteko alor horretan”. Azken batean, Aierdik gaineratu duenez, “ikaslea bere osotasunean hartu behar da. Egiteko gai ez denari begiratzeko ohitura baino ez dugu, eta, orokorrean, abilezia zertan duen begiratu beharko genuke. Eta horiek baliatuz, akaso beste bide bat erabilita, aurrera nola egin dezakeen aztertu. Zergatik ez dugu, bada, bide hori jorratuko?”.

Horren ildotik, Laskoraingo zuzendariak hasi berria zeneko pasadizo bat gogoratzen du. “Bazegoen DBHn ikasle kaskar horietako bat, beti korridorean, beti ikasgelatik kanporatua, ez zuen ezer gainditzen. Beti gurasoei deika, klase partikularrerako baterako eta besterako... Ez genuen ezer lortzen! Behin, sofa kaskar batean, buruz gora jarrita, hankak zintzilik,





“Ikaslea bere osotasunean hartu behar da. Egiteko gai ez denari begiratzeko ohitura baino ez dugu. Eta, orokorrean, abilezia zertan duen begiratu beharko genuke.”

tronboia jotzen ari zen. Baina ederki, primeran jotzen zuen! Pentsatu nuen: baina gaztetxo horrek nola egiten du hori, partiturei begiratu ere egin gabe eta buruz gora!!! Beraz, ez zen horren kaskarra, ikuspegi kontua zen... Gauza batzuk oso-oso ondo egiten zituen. Gaztelaniarekin, matematikarekin eta ingelesarekin ezin zuela? Ados, baina trebetasunak bazituen, badago zer bait bere baitan...”

Gurasoekin ere bai

Ikasleek, irakasleek, idazkaritza-koek... guztiek baliatzen dute adimen emozionala Laskorainen. Baina baita ikastetxean egunero egoten ez den beste eragile garrantzitsu batek ere. Gurasoek, hain justu. Horiekin ere lan handia egiten ari dira Tolosan. Ezeizak azaldu duenez, gurasoekin ere adimen emozionala lantzea beharrezko bilakatu zen. “Haurrak sentimenduz hitz eginez joaten ziren etxera. Ailegatu, eta horrelakoak botatzen zituzten: Ama, gaur triste sentitzen naiz! Aita, gaur haserre nago... Eta etxeetan zer lantzen ari

ginen bazekiten arren, ez zuten horrelakorik espero. Imajinatu gurasoen egonezina!”

Ikastetxeak ez ezik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ikusi zuen, adimen emozionalaren proiektua eskola elkarre osora hedatu behar bazen, oso garrantzitsua zela gurasoen parte-hartzea. Horrela, gurasoentzako beste prestakuntza mota eskaintzen hasi zen.

Laskoraingo gurasoek primeran erantzun zioten eskaintzari. “Berehala ikusi genuen gaiak interes handia sortu zuela, eta lehenengo prestakuntza jasotzeko, 150 gurasok eman zuten izena bat-batean”. Eta primeran ari da funtzionatzen. Izan ere, 150 horien atzetik beste guraso pila batek jaso nahi du prestakuntza. Horretarako, prestatzaile asko behar zituzten. Ezeizak azaldu duenez, Aldundia konturatu zen ez zeukala behar adina jende. Horrela, beste estrategia bat pentsatu behar izan zuten, eta, Ezeizaren ustez, oso estrategia ona izan da.

“Hain zuzen ere, Expertis maila eginda zutenei gurasoak prestatzeko ikastaroa eskaini zieten. Ikastolako lau kide joan ginen prestakuntza hori jasotzera, eta ondoren, ikastolako bertako langileak hasi ginen gurasoak prestatzen”, azaldu du. “Hori, ordea, ez zen nahikoa izan, gurasoen aldetik eskaria izugarria izan zelako. Horrela, gurasoei gainerako gurasoak prestatzeko aukera eskaini zitzaion”.

Azken batean, Goikoetxearen hitzetan, “gurasoak bilakatu dira beste gurasoen prestatzaile”. Hasiera batean, proposamen horrek ez zuen oso harreara ona izan. Aldundiak baldintza bat jarri zuen: bigarren maila gainditzen zu-

ten gurasoek besteen prestatzaile izan beharko zuten ondoren. Askok ez ziren horretarako gai ikusten, baina guraso batzuk prest agertu ziren. “Bigarren deialdia etorri zenean, guraso batzuk ohartu ziren, bat-batean, beren irakaslea lehenengo mailan gelakide izan zuten gurasoetako bat zela. Ez genekien nola hartuko zuten hori, baina, orain, oso-oso balioespen baikorra egiten dugu. Oro har, gurasoek lasaiago sentitzen zirela esaten zuten, gertuago sentitzen zutela beraiekin batera hasitako guraso bat... Lasaiago, gusturago eta hurbilago sentitzen dira”. Goikoetxeak azaldu duenez, irakasle lanean jarri ziren gurasoentzat ere erronka handia izan zen, baina oso-oso ongi funtzionatu du.

“Lehenengo guraso taldeak, adibidez, dagoeneko egin ditu hiru moduluak, baina, orain, ez dute proiektua askatu nahi”, azaldu du Ezeizak. “Horregatik, hilean behin horiekin elkartzen jarraitzen dugu. Jendea harrapatuta dago. Ikusten dute oso positiboa dela bai etxerako, bai beraien bizitza pertsonalerako... Egia esan, oso esperientzia polita izaten ari da”.

Adimen emozionala

Zeintzuk dira prestakuntzaren gakoak?

Lehenengo maila sarrera moduko bat da. Adimen emozionala zer den, zertarako balio duen, pertsonari zer onura dakarzkion, gurasoentzat zer balio dituen, ingurukoekin eta abarrekin dituzten harremanetarako zer eskaintzen duen... Eta, Ezeizaren esanetan, oso garrantzitsua den beste kontu bat ere lantzen da. “Gurasoei beren seme-alabek zein indargune eta ahulezia dituzten identifikatzen irakasten zaie. Izan ere, gaur egun askotan ikusten dugu gurasoek itxaropen izugarriak izaten dituztela euren seme-alabengan. Hori guztia ulertzen ere laguntzen diegu”.

“Bigarren maila oso pertsonala da”, azaldu du Ezeizak. “Gurasoek euren baitara sartu behar dute, eta galdera ugariaren erantzuna bilatu: Zer sentitzen dut egunerokotasunean? Nola

identifikatzen dut emozio bat edo beste? Emozio jakin bat sentitzen dudanean, zer egin nahi dut? Noiz sentitzen dut askotan emozio hori? Galdera asko dira, beti etxeko egoerei lotutakoak, seme-alabekin, etxeko bikotearekin...”. Azken batean, beren buruari kalte egingo dioten emozioak nola kudeatu ikasten laguntzen zaie batez ere, Ezeizaren arabera. “Autoestimua eta automotibazioa zein garrantzitsuak diren eguneroko bizitzan, zein estrategia jarraitzen duen bakoitzak, nola bilatu, nola motibatu, egunerokotasun horretan, arazoei aurre nola egin...”.

Goikoetxearentzat, lan handiena horrek eskatzen du. “Zure benetako emozioa zein den konturatzeko denbora asko behar da. Autokontzientziarenak lan handia ematen du. Nik, behintzat, nire taldearekin hor suma-

tzen nuen lanik handiena. Dagoeneko 4. moduluan ginen, familia eta bikotea lantzen, baina atzera begira jarri behar izaten genuen, nor bere abiapuntura, bakoitzak berea ezagutzeko”.

Aierdiri, adibidez, hiztegiarekin gertatzen zaio hori: “Bilerara etorri eta bati edo besteri entzuten diozu gaizki dagoela esanez. Baina zer da gaizki egotea? Haserre zaude, akaso? Triste? Oso zaila da hiztegi hori barneratzea”.

Ezeizak eta Aierdik oso gustuko dute laugarren modulua: familia eta bikotea. Goikoetxeak ez du horren atsegin. Ezeizak dio hori dela gurasoei ere gehien gustatzen zaiena: “Oso polita da. Haurra jaiotzen deneko atxikimendua nola sortu den lantzen dugu, zein bide jarraitzen duen, zein garrantzitsua den hori amarentzat eta aitarentzat... Argibideak ematen dizkigu harreman hori berreskuratzeko, nahiz eta orain seme-alabek beste adin bat eduki. Askotan arazoak izaten dira etxean arauak ezartzeko. Nola jarri? Txikiak direnetik nola hasi errutina edo arau horiekin, nerabeekin nola jokatu... Nera-beena oso gai labainkorra da. Finean, guraso gisa ziur sentitzen laguntzen diegu.

Goikoetxearen hitzetan, emozioa oinarri hartuta, beste guztia eraikitzea da gakoa. “Azken batean, jokabide gehienak emozioetan oinarritzen direlako. Zergatik dugu gauzekiko ikuspegi bat edo bestea? Horren oinarrian ere emozioak daude. Horregatik ematen du lan handia autokontzientziaren gaiak. Horrekin etorriko delako beste guztia”.



www.laskorainikastolako.net helbidetik jaitzitako argazkiak



Gurasoen parte-hartzea

Elena San Martin, Patxi Amantegi eta Amaia Oiarbide gurasoekin hitz egin dugu eta hauxe kontatu digute.

Laskorain Ikastolak Adimen Emozionaleko prestakuntza eskaini zuenean, eta lanketa horretan murgildu ginean, geure beldurrak barne, noski, ilusioz beterik egin genuen. Lehenengo prestakuntza hartan ikasi genuen ataletako bat, eta guztiz beharrezkoa izan zena, gure seme-alaben heziketa prozesuan, beraiek ondo ulertu eta ezagutu ahal izateko, geure barnera begiratu eta geure pertsonaren ezagutza zabala eskuratzea beharrezkoa dela izan zen. Lanketa hartan, beste guraso batzuekin geure etxeko esperientziak alderatzea, partekatzea eta elkar ezagutzea oso lagungarri izan zen gure arteko lotura eta kohesioa lortu ahal izateko; bertan, gauza oso pertsonalak agertzen baitziren.

Prestakuntza harekin hainbat gauzatzat ohartu ginen, norberarentzat positiboa dena besteengan proiektatu daitekeela, eta noski, geure etxeetan batez ere. Guraso gisa, hainbat estrategia eta tresna ikasirik ziurrago ere senti gintezkeela.

Hurrengo modulua iritsi zenean, eta aurkezpena egin zigutenean, benetakoa iritsi zitzaigun. Hainbat gurasok prestakuntza jaso nahi zutelara eta giza baliabide eskasian zeudela ikusita, 2. modulua gauzatu ahal izateko, guraso formatzaile izateko prestakuntza jasotzeko konpromisoa hartu behar genuen.

Abentura hartan ere murgildu ginen. Zortzi gurasok jaso genuen prestakuntza. Bidea luzea izan zen. Bertan,



Patxi Amantegi eta Elena San Martin gurasoak

emozioak erregulatzeko tresnak jaso genituen, enpatia, asertibitatea, sozial trebetasunak, entzute aktiboa, gatazken konponketa, hezitzeko estilo ezberdinak, arauak, gure seme-alabekiko erlazioak, komunikazioa eta abar jorratu genituen...

Gure prestatzaileek gaian "adituak edo..." baginela kontsideratu zuten eta hurrengo ikasturtean prestakuntza hori eman ahal izateko trebatu gintuzten.

Jadanik 2. urtea dugu beste guraso batzuei prestakuntza eskaintzen. Guk tailerra deitzen diogu, eta, berez, ez gara adituak, talde lanetan beraiekin batera trebatzen ari baikara. Pentsa! Geure taldeetan, 1. mailan geure ikaskideak izan zirenak ditugu.

Dena den, tailer horiek gai guztiak berrikusten laguntzen digute, egunerokotasunean arazoei beste modu batean aurre egiten, emozioei, zailtasunei buruz beste lasaitasun batekin aritzen.

Ikastolako hainbat irakaslekin eta profesionalekin erlazio estuagoa daukagu, ikastola gertuago sentitzen dugu; finean, geure pertsonarengan ere hasi gara aldaketa txikiak somatzen, benetan, lana apasionantea da!

Hurrengo ikasturteetarako helburua gure dinamikara jende berria erakartzea da, prestakuntza eskaini, taldean gustura sentiarazi... giro horretan murgiltzen joateko.

Etxean eta ikastolan emozioak agertzeak eta modu beretsuan jokatzeko asko lagun dezakeela ziur gaude, eta denboraz, erregulazioak, enpatiak, asertibitateak, talde lanak, besteekiko harremanak... giroan eragiten joan behar dutela iruditzen zaigu. Horrek, tximeleta efektua egin dezake. Guraso, irakasle, ikasle... guztiok gaude bertan eta horrela sentitzen dugu, momentuz indartsu sentitzen gara denok itsasontzi berean eta izar berera begira.

antonio rodriguez de las heras

EL KARRIZKETA

Madrilgo Carlos III Unibertsitateko irakaslea

“Etorkizunari so bizi ahal izateko
ziurgabetasuna arnasten ikasi behar
du gizakiaren garunak”



RDUNALDI
OGIKOAK

NPETENTZIAN
RITUTAKO HEZKUNTZA
HOBETU

eta 11n
EGIAN

antonio rodriguez de las heras



Joan den martxoaren 9, 10 eta 11n XVII. Jardunaldi Pedagogikoak egin ziren Gasteizko Europa Jauregian 'Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza. Berritu eta hobetu' izenburupean. Ikastolen Elkarteak antolatuta, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko Antonio Rodriguez De Las Heras irakasleak eskaini zuen hitzaldia, besteak beste. Irakaslea berrikuntzaren aurrean izeneko mintzaldia eskaini zuen, eta metafora bat baliatu zuen gizarte teknologikoaren ezaugarriek hezkuntzan izan dezaketen eragina azaltzeko.

Antonio Rodriguez De Las Heras, unibertsitateko irakasle ez ezik, Educared prestakuntza zentroko eta Telos teknologia eta informazioaren gaineko ikerketa aldizkari zuzendari ere bada.

Irakaslea berrikuntzaren aurrean, horixe izan zen zure hitzaldiren goiburua.

Hala da, bai, eta uste dut antolakuntzak oso izenburu egokia proposatu zidala. Zergatik? 'Berrikuntza' une honetan hitz *talismana* eta *komodina* bilakatu delako. *Komodina*, edozein diskurtsotarako balio duelako. Edonon jarrita ere ongi geratzen da, baita publikitatean ere. Eta *talismana*, uste dugulako berrikuntza edozer gauzari aplikatuta, beti izango dugula etekina. Baina zein da hiperkomunikatuta dagoen gizarte honetan hain azkar bidaiatzen duten horrelako hitzen arazoa? Bada, txanponak bezalakoak direla. Eskutik eskura gastatzen joaten dira pixkanaka, eta berriro landu behar izaten dira. Nik uste dut 'berrikuntza' hitza ere hori pairatzen ari dela, nahiz eta denbora gutxi daraman eskutik eskura, ahoz aho, hitzaldiz hitzaldi... Beraz, komeni zaigu 'berrikuntza' hitzari duen benetako esanahia eta pisua itzultzea.

Nola, baina?

Nik badut horretarako proposamen edo galdera bat. Irakaslea zer dago, berrikuntzaren aurrean edo berrikuntzaren baitan? Berrikuntzaren aurrean egongo balitz, guztion erronka praktika soil bat ikastea izango litzateke. Ekintza bat ikastea edo horretarako prestatzea izango litzateke. Baina gakoa ez da ikastea soilik. Berrikuntzaren barruan gaudenez, ulertu ere egin behar dugu. Arazo teorikoa da praktikoa baino gehiago. Eta horixe da nik proposatzen eta defendatzen dudana. Eten-gabe iristen zaizkigun hobekuntzarako eskakizunen aurrean, irakasleok sarritan pentsatzen dugu praktika zehatz batzuetan topatuko dugula irtenbidea. Baina gakoa ez da hori. Ministerio bati izen hori ipini arren, arazoa da behar bada berrikuntza zer den ez dugula behar bezala ulertzen. Nola eseri behar dugun eta eskuak nola ipini behar ditugun pentsatu ere egin gabe pianoa jotzen ikasten hastea bezala da. Akaso presaka nabil, eta partiturako lehenabiziko notak baino ez ditut jo nahi, mi, re fa, si,

sol, do... Baina eskuak eta besoak gaizki ipinita badituz, gaizki baldin banago eserita eta pianoaren aurrean dudana jarri ez bada egokia, pianoa jotzen ikasteko egindako ahalegin guztia desitxuratzen joango da. Eta arazo horixe dugu beste hainbat gauzarekin, baita berrikuntzarekin ere. Beraz, hausnarketara arazoa da praktika arazoa baino gehiago.

Berrikuntzaren gaiak zuzenean eragiten dio irakasle lanari, ezta?

Bai, hala da. Berrikuntza deritzon fenomeno baten barruan gaude eta eragin egiten digu irakasle garen alde. Metafora baten bidez saiitzen naiz fenomeno global horrek nola eragiten digun azaltzen. Horretarako lehenengo urratsa, berrikuntzaren barruan gaudenez, kanpora ateratzea izango da. Zergatik? Bada, aztertu nahi duguna ateratzea lortzen badugu, gure burua ikusiko baitugu eta, horrela, hausnarketarako gai izango baikara, ispilu baten aurrean bageunde bezala. Sarritan, barruan gaudenean, ez baitugu gertatzen ari dena ikusten.

Baina zaila da hausnarketak kanpotik egitea.

Horregatik oinarritzen da metafora oso etorkizun urruneko arkeologo batzuen istorioan. Espazioan ere oso urruti daude arkeologo horiek; estralurtarrak dira. Indusketa lanetan gure zibilizatoraino ailegatu dira, eta arkeologo guztiek bezalaxe, gehien gustatzen zaiena egingo dute. Zaborrontzietan begiratu. Zergatik interesatzen zaizkie, esaterako, haitzuloen atarian dauden zaborrontziak? Bada, erazitako hondakin horiek oso aberatsak direlako, haitzulo barrukoak baino gehiago. Zaborregietan botatzen ditugulako gure ekintza guztien soberakinak, eta oso geruza baliagarriak uzten dituztelako.

Zabor horien artean hondeatzen hasiko dira, beraz, etorkizuneko arkeologo estralurtar horiek. Eta aurkituko dituzten geruza horien guztien artean, bereziki esanguratsua den bat topatuko dute. Maila batetik gora, ikusi ahal

izan zuten gizarte horretako pertsonak zaborretara botatzen zituzten gauzak ez zirela gauza zaharrak. Ez ziren apurtutako objektuak edo hondatuta zeudenak. Zaborrontzia egoera bikainean zeuden gauzez beteta zegoen, baina gizarte horretan bota egiten zituzten.

Aldiz, geruzaren maila horretatik behera aurkitu zituzten gauzak apurtuta zeudela ohartu ziren. Zaborrontzi batean, oro har, normalena den bezala. Maila horretatik gora zegoen albista: zabortegia gauza berriz beteta zegoen.

Zergatik gertatzen zen hori?

Arkeologoen, beti bezain zorrotz, gure zibilizazioa ezagutzen ez zuten arren, botatzen genituen gauza horiek guztiak berriak izan arren, gaixorik zeudela pentsatu zuten. Zibilizazio horretan, beraz, gaixotasun bat zegoen, handik beherako gizarteetan ez zegoena. Objektuek –baita materialak ez direnek ere, baina horiek ez dute aztarnarik uzten– gaixotasun bat zuten, eta arkeologoen zaharkitze deitu zioten eritasun horri. Zer da, baina? Objektuak gaixotu egiten dira, baina ez apurtu egiten direlako edo erabilerarekin hondatu direlako; ekosistema artifizialean beste objektu bat agertzen delako baizik. Orduan, bizidunen artean gertatzen den bezala, objektu berriak aurrekoa kaltetzen du, eta egoera ezin hobean egon arren, gabeziak izango ditu. Horrela, bada, aztertzen ari ziren gizarte horretako ekosisteman gaixotasun azkar bat nagusitzen ari zen, etengabe gauza berriak jasotzen zituztelako.

Arkeologoen geruza maila horretatik gorako gizarteari berrikuntzaren gizarte deitu zioten. Etengabe gauza berriak sartzen zituzten, eta ez bakarrik gerora fosil bilakatzen ziren gauza materialak, baita ideiak ere. Aldiz, geruzaren maila horretatik beherakoei zaharberitze gizarte deitu zieten. Hau da, erabileraren ondorioz objektu bat apurtzen zenean konpondu egiten zen, zaharberitu. Apurtutakoaren berdin-berdina zen beste bat egiten zen.

Arkeologoen oso interesgarria iruditu zitzaizkien, eta berrikuntzaren gizarte-



ren geruza aztertzen hasi ziren. Maila horretan ez zegoen gauza materialei buruzko informazioa soilik. Gizarte hura nola antolatzen zen ere jakin ahal izan zuten: erakundeen egitura, zer baliatu zituzten, nolako pentsamendua zuten... Gizarteari behatzen ari zirela honakoa ondorioztatu zuten: etengabe gauza berriak barnatzen aritzeko, ezinbestekoa da gizarte horretako pertsonak beste modu batean kokatuta egotea munduan. Ez, behintzat, zaharberitze gizartearen pertsonak bezala. Ez zen posible!

Nolako gizarteak ziren?

Zaharberitze gizarte oso ongi deskribatu zuten. Oso garai luzea izan zen, kontuan hartzekoa. Gizakiak dimentsio espazialari garrantzia emanez ezarri ziren munduan. Hau da, espazio bat okupatu eta, ondoren, lurralde bilakatzeko zuten. Aurkitutako aztarnen arabera, milurteko milurteko espazioa okupatzen aritu zen gizakia. Horregatik zen hain garrantzitsua demografia, horregatik zen hain garrantzitsua indarra –ez bakarrik lanerako–, horregatik zen garrantzitsua lurra –ez soilik okupatua izateko, baita gainerakoak zuretzat lan egitera behartzeko ere... Beraz, aberastasuna ez zen espazioa izatea soilik. Lurrak izatea alferrikakoa zen demografikoki indarririk ez bazenuen edo gainerakoak mendean hartzeko gai ez bazinen. Horrela, espazioa

edukitzeaz gain, leku hori lurralde bilakatu ahal izateko indarra ere beharrezkoa zen.

Geruza horretan bazegoen beste maila bat, nahiko txikia, baina oso esanguratsua. Maila horretako gizakia beste modu batean ezarri zen munduan: energiari espazioari baino garrantzi handiagoa emanez. Baina kasu horretan ere alferrikakoa zen energia iturriak izatea, energia hura produktu bilakatzeko modurik ez bazegoen. Garai horretan ez zuten gerlariaren edo laborariaren indarra behar, industriarena baizik. Industria horietan eraldatu egin behar zuten energia, eta produktu bilakatu. Boteretsuak ziren, ez energia iturriak zituztelako, energia hori produktu bilakatuko zuten lantegiak sortzen zituztelako baizik. Arkeologoen ez zioten industria iraultza deitu, beste izen bat jarri zioten. Baina argi zeukaten beste gizarte mota bat zela

Eta berrikuntzaren gizarte, nolakoa zen?

Berrikuntzaren gizarte aztertzen hasi zirenean, ohartu ziren munduan ezartzeko modu berri bat nagusitu zela. Ez zuten espazioa lurralde bilakatu behar, ez eta energia produktu bilakatu behar ere. Gizarte horretan informazioa ezagutza bilakatzea zen gakoa. Baina, noski, informazioa zerk bilakatzeko du ezagutza? Lantegiek? Ez, lantegiek ez dute informazio hutsa ezagutza

antonio rodriguez de las heras



bilakatzeko. Arkeologo estralurtarrek argi zeukaten hezkuntza zela gakoa. Baina aurreko geruzetan erabiltzen zen hezkuntzaren oso bestelakoa, gainerakoa ez baitzuen funtzionatuko.

Nola bilakatzen da informazioa ezagutza?

“Zuhaitzek ez digute basoa ikusten uzten”, dioen esaera baliagarri zaigu. Zuhaitzak informazioa izango dira: datuak, gauza bereziak, errepika ezinak... Horixe da informazioa. Eta garunak, sehaskan dagoenetik, modu miragarrian egiten du lan datu horiekin. Haurbatek, biberoiarekin edo gau-mahaiko lanparako bonbillarekin erretzen denean, datu bereizgarriak jasotzen ditu: erredura bat ezpainean eta erredura bat hatzean ez dira gauza bera. Denborak aurrera egin ahala, haurren garuna gai izango da, modu miresgarrian, bidatu bereizgarri horiek lotzeko eta bi kasuetan erre egin dela esateko. Biberioia eta bonbilla bero zeudela jakiteko. Horrek abstrakzio maila handia eskatzen du. Haurra Einstein txiki bat da, liluragarria. Eta bere garunak izugarri ondo funtzionatzen du, eskolatatu egiten duten arte.

Zuhaitzek ez digute basoa ikusten uzten, eta basoa ikusi ahal izateko ezinbestekoa da zuhaitzak moztea. Datu bereizgarriak ditut, XVIII. mendeko mundu naturalista daukat, Mendelen ilarrak ditut, eta horietatik guztietatik lege batzuk ateratzen ditut. Beraz, dagoeneko ez ditut tximeleta guztiak il-tzatuta ikusi behar, nahikoa izango dut lege bat. Horixe da abstrakzioa; zuhaitzak moztu eta basoa ikustea.

Baina arkeologoen arazo bat ikusten zuten: ezagutza edukitzeko informazioa behar da. Eta informazioa, maila jakin bat gaintzen duenean, oztopo bilakatzen da. Hori gertatuz gero, garuna ez da gai izango informazioa eraldatzeko, eta ezagutzarainoko jauzia trabatuko du. Horregatik nioen haurra Einstein txiki bat dela eskolara eramaten duten arte. Zergatik? Oraindik ez dugulako ongi ulertu informazioak hezkuntzan duen zeregina.

Nola baliatu behar du hezkuntzak informazio hori?

Onuragarria dela pentsatuz, barnera dezaketena baino informazio gehiago ematen diegu ikasleei, eta haurren garuna gizendu egiten da. Ondorioz, arintasuna galtzen du, eta gizona dagoen haurrak heziketa fisikoan zailtasunak izango dituen bezala, garunean informazio gehiegi duen haurrak ere ez du abstrakzio gaitasuna izango. Neurria hartzea izango da erronka, garuna argalegia edo gizenegia egon ez dadin. Zaila da, baina ahalegina beharrezkoa zela argi ikusi zuten arkeologo estralurtarrek.

Gizarte hark aurreko maila gaintu bazuen, kanpoko memoria bat izateko modua aurkitu zuelako izan zela ondorioztatu zuten arkeologoen. Informazio guztia garunean eduki beharrean, garunetik kanpo edukitzeko modua topatu zuten. Eta, gainera, garunak bezala funtzionatzen zuen. Beraz, arkeologoak ohartu ziren aurreko zaharberritze gizarte haietan erabiltzen zen kanpoko memoriak ez zuela baliorik berrikuntzaren gizartean. Hau da, urteetan hain baliagarria izan zen asmaki-

E

“ Onuragarria dela pentsatuz, barnera dezaketena baino informazio gehiago ematen diegu ikasleei, eta haurren garuna gizendu egiten da. Ondorioz, arintasuna galtzen du, eta gizona dagoen haurrak heziketa fisikoan zailtasunak izango dituen bezala, garunean informazio gehiegi duen haurrak ere ez du abstrakzio gaitasuna izango.

”

zunak, liburuak, ez zuen ezagutzaren gizarterako balio. Informazio asko behar izaten baitzuten, berehala egon behar baitzuen eskuragarri, eta etengabe hazten joan behar baitzuen. Liburuak eta apalen sistemak, beraz, ez zuen kanpoko memoria berri horrek eskaini behar zuen arintasuna bermatzen.

Ordenagailuez ari ziren?

Garunaz kanpoko memoria hark edozein lekutan eta edozein unetan eskuragarri egon behar zuela ondorioztatzen zuten. Deslokalizatua izan behar zuela, hau da, informazio guztiak ez zuela zertan leku bakar batean egon. Alderantziz, banatuta egon zitekeela, gure garunean gertatzen den bezalaxe. Eta, azkenik, ohartu ziren informazioak sare egitura izan behar zuela. Gero, aurkitu zituzten hondakin materialak esker jakin ahal izan zuten gizarte horretan kanpoko memoria bat zutela. Beraiek ez zioten Internet deitu, baina asmatu zuten.

Beste hainbat ondorio ere atera zituzten. Besteak beste, ezagutzaren gizartean bazeuden, aurreko gizarteetan energia behar zuten bezalaxe hain berehala eskuratu zitekeen informazio kopuru izugarria behar zutela ezagutza bilakatu ahal izateko. Ezagutzak eragina dauka gizartean, eraldatu egiten du, eta aztertzen ari ziren geruza horretan argi ikusten zen aldaketa hori. Ezagutza, beraz, argindarra bezalakoa da, mugitu egin behar du. Gainerakoan ez du efekturik sortuko. Edo, beste modu batera esanda, ezagutzak gizartean eragina izan dezan barreiatu egin behar da, isuri. Gizartea busti behar du, orduan baino ez baitu eraldatuko. Sekretupean gordeta baldin baduzu, ez du eraginik izango.

Eta nola barreiatu zen ezagutza gizarte horretan?

Horixe bera galdetu zuten arkeologoek ere. Zein bide erabili ote zuten garun lantegi haiek sortzen zuten ezagutzak gizartea eralda zezan? Berehala osatu zuten eskema moduko bat. Argi ikusi zuten gizarte horretan ezagutza

hiru bidetatik barreiatzen zela. Hain zuzen ere, teknologiaren, kulturaren eta hezkuntzaren bidez. Zergatik zioten arkeologoek hori? Bada, ezagutzaren zati handi bat kondentsatzen denean transmititzen delako, energia bezala. Eta horixe da teknologia; kondentsatutako ezagutza. Teknologiaren bidez, ezagutza kaxa bat bezala erakusten zaigu, baina fisika kuantikoa bera ere gailu elektronikoetan dago kondentsatuta. Ezagutza, baina, ez da gizartera ailegatzeko pertsonen %99ak ulertzen ez dituen teoria kuantikoen bidez, euren eguneroko bizitzan eragin zuzena duten tresna batzuen bidez baizik. Horrela, besteak beste, ezagutzak autonomia sortzen du gizakiarengan. Eta, beraz, teknologiak ere autonomia eskaintzen dio erabiltzen duenari. Horrenbestez, etorkizuneko gure arkeologoek ondorioztatzen zuten teknologia oso garrantzitsua zela aztertzen ari ziren gizarte hartan. Hala, arkeologo eskola batzuek berrikuntzaren gizartea deitu beharrean, teknologiaren gizartea deitu zioten. Bide garrantzitsua zelako gizarteari ezagutza guztia transmititu ahal izateko.

Baina ez zen bide bakarra.

Ez, bazen beste bide bat: kulturarena. Esaterako, T.S. Eliot poetaren bertso batek esaten du "All is always now" –Orain da beti dena–, eta hori formula bat da, formula poetiko bat. Izaki bizidun guztiok sentitzen dugu orainaldia dela deboran dugun lekua, eta ezin dugula ez lehenaldia ez eta etorkizunera bidaiatu. Modu batean edo bestean guztiok sentitzen dugu hori, eta bakoitzak bere bizipenak izango ditu egoera horretan. Poetak, guk bezalaxe sentitzen duena idatzi egiten du, formula bat sortzen du: All is always now. Eta formula hori kultura bilakatzen da. Teknologia erabili beharrean, erosi duzun liburu bateko bertsoen bidez transmititutako ezagutza izango da. Beste adibide bat: guztiok ikus dezakegu ilunabar bat, berezia bakoitzarentzat. Baina margolari batek ilunabar bat ikusi dugun guztien zirrara laburbiltzen du formula bakar batean; formula pikturiko



batean. Horixe da ezagutza; berezitasunen abstrakzioa egitea, formula bakar batean bildu ahal izateko. Ondoren, teknologiarekin bezala, gainerakoei transmititzeko. Gauza bera gertatuko litzateke sinfonia batekin eta beselako adierazpen kulturekin ere. Beraz, kultura ere oso bide zabala da ezagutza gizartean barreiatzeko eta berau aldatzeko.

Eta hezkuntzak ez al du zereginik horretan?

Bai, noski. Eta horixe zen gizarte hartan baliatzen zuten hirugarren bidea. Hezkuntzak, baina, ez du ezagutza teknologiaren edo kulturaren bidez barreiatzen, programa eta diziplina baten bidez baizik. Hau da, botereek ezagutza jasotzeko modu jakin bat programatzen eta kontrolatzen dute, ondoren barreiatzeko. Baina ezagutza hori ezberdina da; beste modu batean ailegatzeko da gizartera. Izan ere, poesia atsegin badut liburu bat erosten dut, zinema atsegin badut joan egiten naiz... Aldiz, hezkuntza unean uneko botereek gidatzen dute, eta haiek esaten dute zer den ezagutu beharrekoa. Eta, gainera, kontrolatu egiten dute. Hirurek sortzen dute autonomia jasotzen dutenengan, baina oso modu ezberdinetan.

Hiru bide horiek, ordea, guztiz lotuta daude.

Bai, zalantzarik gabe. Ikus dezagun nola eragiten dioten elkarri. Zer harreman dauka teknologiak hezkuntzare-

antonio rodriguez de las heras

E

“
Guztiok ikus dezakegu ilunabar bat, berezia bakoitzarentzat. Baina margolari batek ilunabar bat ikusi dugun guztien zirrara laburbiltzen du formula bakar batean; formula piktoriko batean. Horixe da ezagutza; berezitasunen abstrakzioa egitea, formula bakar batean bildu ahal izateko.
”

kin? Etorkizuneko arkeologoen arabera, gizarte horrek izan zuen aurrerapen teknologiko nagusietako bat kanpoko memoria bat osatuko zuten gailuak sortzea izan zen. Horrelakorik gabe ezinezkoa izango litzateke berrikuntzaren eta ezagutzaren gizarte bat. Gailu baten beharra zegoen horretarako, eta arkeologoek aztarnak aurkitu zituzten: kable batzuk, txip modukoak...

Teknologia batek behar bezala funtzionatzen duenean protesi bilakatzen da, eta arkeologoek ondorioztatu zuten gailu horiek buru protesiak zirela. Gero eta txikiagoak bilakatzen joan ziren protesiak, ia ikusezinak. Baina protesi horiek ez ziren besteak bezalakoak. Garunaren funtzioei eragiten zieten: informazioa eskuratu, komunikatu, amets egin, imajinatu... Horiek guztiak protesiari esker zabaltzen ziren. Arkeologoen arabera, garunaren lana anplifikatzen zuen protesiak.

Zein ondorio izan zituen protesi hark hezkuntzan?

Gizarte hartan kontuan eduki behar zuten haurrak garun protesiarekin ailegatzen zirela eskolara. Gainera, arkeologoek frogatu zuten protesi horiek gero eta txikiagoak zirela, gero eta indartsuagoak, eta baita gero eta pertsonalagoak ere. Beraz, garun anplifikazio horrekin joaten ziren haurrak eskolara, ez zuten han ipintzen. Argi zegoena zera zen: eskolak haur horien beharretara moldatu behar zuela. Arkeologoek ez zuten nahi adina informazio, eta gai horrek eztabaida handia sortu zuen.

Kulturaren eta hezkuntzaren arteko harremana, nolakoa zen?

Harreman horrek ere eztabaida handia sortu zuen. Arkeologoek pentsatu zuten gizarte hartan itsututa egon behar zutela ezagutza lantegi ezin hobek izango ziren garunak sortzeko ahaleginean. Lehen aipatutako kanpoko memoria horietan gordetzen zuten informazioa, ezagutza lantzeko leku gehiago eskuratzeko. Beraz, informazioa kanpoan gordeta, garunak aukera dauka itota egon den gaitasunari atera-

tzen uzteko. Hau da, abstrakzioarako gaitasunari lekua egiteko.

Dena den, arriskutsua ere bazen. Akaso, gizarte hartan interes gehiegi izan zezaketen itxuraz oso eraginkorrak ziren garunak sortzeko. Eta pentsatuko zuten eraginkortasuna espezializaziotik zetorrela. Horrela, alor batean edo bestean funtzionatu ahal izateko prestatzen zituzten garunak. Alor baterako soilik. Eta gizarte horrek bide hori hartuko balu, aurrera egitea oso zaila egingo zitzaioela pentsatu zuten etorkizuneko arkeologoek. Izan ere, berrikuntzaren gizartea izanik, etengabeko aldaketak jasaten zituen gizartea zen, eta garunak soilik alor zehatz baterako prestatuz gero, desdoitu egingo ziren. Baina bazen gai horren inguruan zalantzak izan zituen arkeologo eskola bat. Ez zuten argi ikusten berrikuntzaren gizarte hartako biztanleek beste bide bat hartzeko erabakia hartu zutenik.

Zergatik?

Irtenbide bakarra zutelako: garunari sakontasuna ez ezik, zabaltasuna ere ematea. Eta zerk ematen dio zabaltasuna garunari? Bada, kulturak. Beraz, hezkuntza eta kultura uztartzeak garun horiek malguagoak eta plastikoagoak bilakatzeko aukera eskaintzen zuen. Gaitasun handiagoa izango zuten etengabeko aldaketen aurrean egokitzeko. Baina arkeologo batzuek gizarte guztietan dauden botereei egin zieten erreferentzia. Arkeologo horien ustez, botereari ez zaio interesatzen, inondik ere, hain izaki malguak eta autonomoak egotea. Ziurrenik gizarte horretan tentsioa nagusituko zen. Eta botereak herritarrei sinestarazi nahi izango zien eraginkortasuna espezializazioaren bidez lortzen dela.

Horrela, agian, kultura eta hezkuntza bereizi egingo zituzten gizarte hartan. Eta hezkuntzaren bidez eraginkortasun profesionala eskainiko zuten bakarrik. Kultura, aldiz, bila zezatela nahi zuten bezala pribilegiadun gutxi batzuek. Ondorioz, gizartearen makinarako balio zuten pieza zehatzak izango zituzten. Baina etengabe aritu beharko

zuten pieza horiek ordezkatzeko, gizartearen makina etengabe aldatzen zela eta piezak berehala desdoitzen zirelako.

Zein bide hartu ote zuen gizarte hark? Galdetzen zuten behin eta berriz arkeologoek. Batzuen ustez erreakzionatu egin behar izan zuten, eta herritar jantziak sortu behar izan zituen, ez ongi heziak soilik.

Beste zer aurkitu zuten arkeologoek geruza hartan?

Hondakinak aztertuz pentsamenduaren eta gizarte antolaketa inguruko datuak ere topatu zituzten. Esaterako, arkeologo estralurtar guztiak adostu zuten gizarte hura paidokrazia bat zela. Horrela behar zuen izan, logikoki. Zergatik? Bada, gizartearen balio nagusia gazteak zirelako, ez zaharrak. Paidokrazia bat zenez, gazteek, pixkanaka, helduen bizi-espazioa hartu zuten, eta adinekoak gizarte funtziorik gabeko objektu soil bilakatu ziren.

Zergatik, baina, paidokrazia? Arkeologo guztiak bat etorri ziren erantzunean. Hain zuzen ere, zaharberitze gizaritatu berrikuntzaren gizaritatu jaurtzean 180 graduko bira esanguratsua eman zelako. Zaharberitze gizaritatu, gizakiek etengabe begiratzen zuten iraganera, eta hara begira lortzen zuten beren identitatea topatzea. Ordura arte topatu zituzten kultura guztiak iraganen oinarritzen ziren. Gainera, gizarte horiek guztiak uste zuten ezagutza, hots, jakin beharrekoa, iraganeko ondarea zela. Iraganen zegoela oraindirako behar zuten guztia. Beraz, iragana jaso baino ez zen egin behar. Horregatik zuten izugarritzko aitortpena adinekoek. Iraganeko ezagutza iturri haie-tatik hurbilen zeudenak zirelako.

Zer nolako aldaketak ekarri zituen horrek?

Arkeologoen ustez, bost mende inguru igaro ziren berrikuntzaren edo ezagutzaren gizarte deitzen zioten hori azaleratzeko. Gizakia, pixkanaka, iraganari begiratzeari utzi eta etorkizunari begiratzen hasi zen. Oso poliiki.

Etorkizunaren aurrean, gauza guztiak egiteko zeuden. Ez ziren gauzak iraganetik jaso eta interpretatu behar. Gauzak egitea zegoen, asmatzea. Horrela sortu zen pentsamolde egokia geruza hartan hain garrantzitsua zen etengabeko berrikuntzarako, sorkuntzarako.

Iraganeko ondareari begiratzeari utzi, etorkizunera begira jarri, eta dena egiteko baldin bazegoen, errotik aldatuko zen guztia, arkeologo estralurtarren ustez. Jauzi hura Lur planetak jasandako beste aldaketa garrantzitsu batekin alderatu zuten: bizitza ingurune anaerobikoetatik, hots, uretatik irten, eta oxigenoarekin moldatzen hasi zenekonearekin, hain zuzen. Aldaketa hark, beraz, hain pozoitsua zen oxigenoarekin gertatu zenak adina garrantzi izan zuen arkeologoentzat.

Ordura arte, gizakien garunak ziurtasunean bizi ziren, eta zalantza ohitu behar izan zuten. Ziurgabetasuna, ordea, oxigeno baino pozoitsuagoa da, eta ziurgabetasuna arnastea hilgarria izan daiteke. Aurreko geruzetako gizakiek, eta hala ondorioztatu zuten arkeologoek, ziurtasunez betetako eraikinak jaso zituzten: erlijioak, ideologiak... ziurtasun erraldoiak ziren. Gizarte berrian, aldiz, etorkizunari so bizi ahal izateko ziurgabetasuna arnasten ikasi behar zuten garun haiek guztiak.

Ez zeuden eguneroko zalantzei eta etorkizuneko ezbaiei aurre egitera ohituta. Eta, beraz, ondorioak apartekoak izan ziren. Arkeologoek asko hitz egin zuten gai horri buruz. Nola egin ote zuten garun horiek umetatik prestatu ahal izateko? Izan ere, aurretik eskolak ziurtasuna besterik ez zien eskaintzen, eta aurrerantzean zalantzak jasoko zituzten. Nolako sistema eraiki zuten orduan? Zalantza handiak zituzten arkeologoek.

Gazteen gizarteak nola funtzionatu zuten?

Galdera horixe zebilkiten arkeologoek ere buruan. Noski, gizakiak iraganari begiratzeari uzten badio eta etorkizunari so jartzen bada, gaztea beharko du izan. Atzera begira aritzen dena adi-



nekoa izaten da, bere bizitza osoa memoria delako. Gazteak, baina, bizitza egiteko du oraindik, eta etorkizunari begiratzen dio. Beraz, ez zen harritzekoa gizarte hartan gazteen balioak egotea indarrean. Baina gai horrek ere sortu zuen eztabaida. Izan ere, gizarte hartako erakunde asko eta asko adinaren agintean oinarrituta zeuden; familia eta eskola, esaterako. Adinekoa izate hutsak agintea ematen zuen erakunde horietan. Zer gertatuko zen gaztetasuna balio nagusia bilakatzen zenean? Nola funtzionatuko zuten eskola eta familia horiek?

Zalantza asko sortu zitzaizkien arkeologoek?

Bai, galdera asko zituzten. Esaterako, gizarte gaztea izanik, pazientzia gutxiago izango zen. Eta beraz, emango al zioten garrantzia ahaleginari? Gazteek berehala izan nahi dituzte emaitzak; 'bihar' esatea 'mendeak' esatea da gaztearentzat. Ulertuko al zuten esfortzua zer den, kontuan hartuta gizarte batek ezin duela ahaleginik gabe aurrera egin? Gazteak ongi pasatu behar du, aisialdia behar du. Nolako izango zen, bada, gizarte hura, guztiak dibertigarria izan behar baldin bazuen? Nola irakatsiko zuten irakasleek? Nola emango zituzten eskolak? Nola hartuko zituzten gazte horiek euren gain beti dibertigarriak izaten ez diren lanak? Behin eta berriz eztabaidatzen zuten arkeologoek gai horiei buruz.

Baina bazen beste eztabaidagai garrantzitsu bat. Ondorioei zegoiena.

antonio rodriguez de las heras

E

“
**Zerk ematen
dio zabaltasuna
garunari?
Bada, kulturak.
Beraz, hezkuntza eta
kultura uztartzeak
garun horiek
malguagoak eta
plastikoagoak
bilakatzeko aukera
eskaintzen zuen.
Gaitasun handiagoa
izango zuten
etengabeko aldaketen
aurrean egokitzeko.**

”

Gizarte hark berehala zahartzeko arriskua zuen. Baina arkeologoek aztertutako hondakin guztien arabera, aurreko geruzetako herritarrekin alderatuta luzeagobizi ziren. Bada, zahartzarora beste modubatean ulertzen zuten. Desdoituta egotea zen zahartzea, inguruarekin bat ez etortzea. Zaharra eboluzioaren ondorioz bere inguruan gero eta arrotzago sentitzen den pertsona da. Iruditzen zaio guztia hankaz gora dagoela, azkarregi doala. Baina bera da mantsoago doana. Horrela, etengabe aldatzen ari den berrikuntzaren eta eza-gutzaren gizar-tean oso gauza berezia gertatzen da: gorputza desdoitu aurretik, ingurua da gurekin bat ez datorrena. Bat-batean zahartzaro goiztiarra agertzen da eta ulertzen ez duzun ingurunean bizi zara.

Zein ondorio izan zituen horrek?

Arkeologoek iritzi, erronka izugarria izan zen hori berrikuntzaren gizar-tearentzat. Gero eta zahar goiztiar gehiago egongo dira, eta gizar-tearen garapenerako oztopo bilakatuko dira. Horiek guztiak kontuan hartuta, arkeologoek ondorioztatu zuten gizarte horren gakoa ez zela asmatzaileak edukitzea izan. Asko egongo ziren, noski, aurreko gizar-teetan baina gehiago. Berri-

kuntzaren gizar-tean, ordea, garrantzitsua ez zen asmakizun berriak sortzea, aldaketak jasotzen jakitea baizik. Hezkuntzak ez zituen asmatzaileak prestatu behar, aldaketak hartzeko gai izango ziren pertsonak baino. Nola egiten zaio harrera aldaketari? Botila huts bat etengabe pasatzen da egunero gure begien aurrean, baina gauza berriak iristen direnean ikusi ere ez ditugu egiten. Hautematea, oso da garrantzitsua. Nola egin, ordea, horiek ikusteko? Iru-dikatuz. Berrikuntzaren gizar-tean oso garrantzitsua zen irudimena. Imajina-ziorik gabe ez dituzu aldaketak ikusi ere egiten. Ondoren, guztiak ikusi eta gordetzea lortzen denean, beste urrats bat eman behar da: gauzak alboratu egin behar dira. Ez baita posible aldaketak geureganatzea, aurretik beste hainbat gauza alboratzen ez baditugu. Horrenbestez, ezinbestekoa zen hezkuntza kritikoa, aldaketei behar bezala harrera egin ahal izateko.

Itxaropenik ba al da?

Erantzun bat behar dugu: berrikuntzaren gizar-teak gaintitu al zituen kontraesana haiek guztiak? Erantzuna hurrengo geruzan dago, baina arkeologoek ez dute oraindik aztertu. Beraz, ezin go dizut, oraingoz, erantzunik eman.



Elikadura

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan, elikadurari trataera pedagogiko osoa ematen diogu. Otordu garaian, haurrak elikatzeaz gain, kontuan hartzen dugu haien heziketa ere.

Haurrarentzat, otordu garaia une atsegina izatea da gure lehen helburua. Horrela, hezitzaileon eta lagunen laguntzarekin, hainbat lorpen izaten ditu, arlo guztietan. Lorpen horiek hiru esperientzia eremuetan nabarmentzen dira: **NORTASUN ETA AUTONOMIAN, INGURUNE FISIKO-SOZIALEAN eta KOMUNIKAZIOAN.**

Gure lan programazioetan adierazten ditugun edukiak otordu garaian ere nola lantzen ditugun azalduko dugu.

Alderdi emozionala

- Ziurtasuna eta afektu giroa sortzen ditugu, otorduez goza dezaten, eta aldaketak onar ditzaten.

- Hasieratik, gure gorputzarekiko kontaktua eta gure begirada dira haurrarentzako lehen babesa.

- Arreta handiz, bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta giro lasaian eskaintzen diegu janaria, esperientzia txarrak saihesteko.

Poliki-poliki, autonomia lortzeko jokabideak indartzen ditugu:

- Tutua hartzerakoan, haurraren eskuak libre utziz, haurrak ahoan sartu



Haur eskolako Mari Jose Arozena eta Ainhoa Garaño.

edo ahotik atera dezan.

- Besoetatik hamakara pasatzerakoan, distantzia handixeagoa hartuz.

- Hamakatik mahaira pasatzerakoan, hasieran talde txikiak osatuz.

Mahaian eserita jaten hasten diren heinean, beraien parte-hartzea eskaintzen dugu.

- Hasieran, koilara txiki bat eskaintzen zaie plater banarekin, eta gainerakoa guk ematen diegu.

- Koilararen erabilera indartzen dugu, baina, hasieran, eskuekin jaten ere uzten zaie, tresnak erabiltzeko beharrezko trebetasuna lortu bitartean.

Haurraren beharrei erantzun egokia ematen saiatzen gara, era berean: haurraren emozioei eta sentimenduei erreparatzen diegu; goseak sorrarazten dion ezinegona aintzat hartzen dugu, edo asetzeak dakarkion ongizatea; jateko gogorik ez duenean, errespetatu egiten dugu; janari aldaketen aurrean

ematen duten erantzuna errespetatu egiten dugu, animatu egiten ditugu...

Gorputzaren lanketa

Otordu garaian gorputza ere lantzen dugu:

- Gorputza, besoak laztanduz.

- Postura autonomoak bultzatzen ditugu, eta haurraren oreka eta tonua ere lantzen ditugu (besoetatik hamakara eta handik mahaira pasatzerakoan).

- Eskuen, begien eta ahoaren koordinazioa eta kontrola lantzen ditugu, koilararen eta edalontziaren erabilera-rekin.

Hasieran, laguntza eskaintzen diegu, eta gero, bakarrik saia daitezen uzten diegu. Ondoren, janari zatiak eskaintzen dizkiegu, modu osoagoan jaten ikas dezaten.

Osasuna eta ongizatea

Janari bakoitzaren aldatze prozesua haur bakoitzaren erritmoa errespe-



- Aurretik eta ondoren, eskuak eta aurpegia garbitu.
- Adurzapia jantzi.
- Mahaian gustura egon daitezen, ez dugu jostailuen beharrik ikusten.
- Jaki berriak atera aurretik, mahaia garbitu.

Ingurune fisiko-soziala

- Otordu garaian, taldean haurren arteko harremanak indartzen eta sendotzen saiatzen gara pixkana.
- Egunero ekintzak errepikatu egiten dira, ohitura txikiak eta arau sozialak barneratzeko.
- Egunero, askotariko jakiekin, janariari buruzko ezagutza sustatu egiten dugu; zapora berriak, kolorea, tenperatura, izenak...

Horrez gain, jolasaren eta esperimentazioaren bidez, elikagai batzuk sakonago aztertzen ditugu ikasturtean zehar...

Komunikazioa eta irudikapena

- Haurren eskaerei erantzunez (begiradekin, keinuekin, hitzekin...), komunikazioa sustatu egiten dugu, egunero-egunero.
- Horretarako, beraien komunikaziorako lehen urratsak kontuan hartzen eta errespetatzen ditugu: ekimena, interesa, negarrak...
- Janariarekin loturiko abestiak, ipuinak eta kontutxoak kantatuz eta kontatuz, hitzezko nahiz gorputz bidezko komunikazioa lantzen dugu:

*Oilo izterra jango mukela begiak
itsu-itsutuk dauzkagu
bateon batek baduela... Zeinek
ote du? Atzera begiratu!*

*Jan, jan, jan eta jan sagarra sartu
dut aboan /edan, edan, edan egarri
garenean...*

*Honek txotxak bildu,
honek sua piztu,
honek arrautza frijitu,
honek gatza bota eta
lodi bonek DENA JAN!!!*



tatuz egiten da, gustura eta gozatzu jan dezan. Beti, askotariko elikagai osasuntsuak eskaintzen zaizkio, eta otordu garai erregulatuak egiten dira:

- Tutua.
- Barazki purea (hutsik/haragiarekin/arrainarekin).
- Postretarako jogurta; eta gero, fruta, arrautzesnea, esnea...
- Bigarren platera osorik eskaintzen diegu.
- Lehenengo platera ere osorik eskaintzen diegu. Hiru platereko otordua egiten da.

Garbitasuna zaindu egiten dugu, eta ohitura desagokiak saihestu egiten ditugu.



ELIKAGAIAK lan proiektua Oartzungo haur eskolan

**Gaiak badu nahiko interes hau-
rrengan. Eguneroko bizitzan oso
testuinguru esanguratsuan sortzen
du, izan ere, janaria mintzagai bihur-
tzen baita bazkari eta askari uneetan
bereziki, baina baita horren gustuko
duten sukalde txokoan jostatzeko
garaian ere.**

**Osagai asko eraldatu gabe eza-
gutzeko aukera izan arren (fruta,
adibidez), beste askoren sorburua
zein den (animalia, baratzea, itsa-
soa...) sumatzeko zailtasun nabar-
menak dituzte, normala denez.**

Bi urteko hurrek eskarmentu txi-
kia dute, baina, dena den, eta gure he-
rriko nekazaritzaren errealitatea kon-
tuan hartuta, hainbat gauza sorburuan
ezagutzeko aukera aparta dugu. Base-
rriak -behiak jezten direnean-, baratze-
ak, oilategiak -euren arrautzea eta guz-
ti-, merkatua, okindegia... erabilgarriak
diren inguruak dira, eta haurren ahal-
men eta gaitasun mailari erraz txerta-
tzeko modukoak.

Hasiera nola eman

- Eguneroko mintzagaia denez,
hurrek adierazten duten interesari
“tiraka” abiatuz.

- Irteeretan baratzearen bat ikusiz,
eta han azaltzen direnak komentatuz.

- Elkarrizketa garaian, hurrei etxe-
an zer jaten duten galdetuz.

- ...

Lanketarako testuingurua

- Bazkaltzeko eta askaltzeko garaia.
- Egun erdiz dagoen taldean, goi-
zerdiko hamaiketako garaia.
- Irteerak.
- Sukalde txokoaren ingurua.

Iraupena

Egoerak erakutsiko du. Ez da den-
bora zehatz batean lantzeko gaia, ikas-
turtean zehar, patxadan, gaiak interes
berezia hartzen duen uneetan landu
beharrekoa baizik.

Helburuak

- Elikagaien sorburua ezagutu.
- Elikagaiak identifikatu.
- Elikagaien manipulazioan (sukal-
daritza esperientziak) zuzenean parte
hartu.
- Eraldaketak esperimentatu.
- Hiztegia zabaldu.
- Ardurak eta jokabide egokiak lan-
du.
- Familia eta haur-eskola lotu.
- Haur-eskola herrira zabaldu.

JANARIEN PRESTAKETA



Zukuak, irabiakiak, krispetak, torti-
lla, mazedonia, txokolatezko moussea,
irabiakia...

Prozedurak

Egiatzko osagaiak manipulatu, eli-
kagaien transformazioan parte hartu,
tresneria erabili, denen artean jan, ge-
lan egindakoa etxera eramanez, osagaiak
gelara ekartzekoan etxekoan parte
hartzea bultzatu...

SUKALDE TXOKOA



- Etxetik ekarritako barazki, fruta,
patata, eta abarrekin “jostatu”.

- Garaian garaikoak landu (azalorea, babak, ilar txikiak, eskarola).
- Izenez bereizten ikasi.
- Eraldatu ondoren, zer diren antzeman.
- Egoera sinbolikoak: rolak, dendak, erosleak...

DENDAK



Ingurukoak bisitatu eta elikagaiak identifikatu: merkatua, okindegia...

IRTEERAK



- Baratzeak bisitatu (Lizarre, Gara-gartza, Biyok...). Horiak, haur eskolaren inguruko baratzeak dira, eta gaur egun haurren gurasoen edo aiton-

amonen baratzeak bisitatzera joaten gara, ahal den neurrian.

Han ari direnekin hitz egin, eta hurrei baratzeen mundua erakusteko eskatu.

- Behiak jezten ikustera baserri batera joateko aukera landu (haurren gurasoekin hitz egin, familiakoen artean ea zer aukera dauden ikusteko).

ERALDAKETA ESPERIENTZIAK

- Lehorte prozesuak (mandarina azala, bestelakoak...).

- Zukuak ateratzea.
- Elikagaiak maneiatzea.
- Ogi-orea eta ogia eginga ezagutzeko (aukerarik balego, gelan orea landu eta



okindegian erre).

IRUDIKAPEN GRAFIKOA

- Hipermerkatuen katalogoetan azaltzen diren irudiekin horma-irudia osatu.

- Egunero, menua izeneko horma-irudia osatu (hiru platerak fitxetan daude eta horma-irudian itsasten dira).

- Txanogorritxoren ipuina kontatu (amonari eraman beharreko elikagaien zerrenda hartu kontuan).

- Teoren ipuinak erabili: baserria, itsasoa, azoka...

- Elikagaien identifikazioa hiru zutabetan (horma-irudiak egin): baratzeetan sortzen direnak, abereengandik lortzen direnak (esnea, arrautzak...) eta itsasotik lortzen ditugunak.

- Bideoa. Behiak jezten ikusi, edo beste hainbat aukera...

TREBETASUNAK Nortasunezkoak:

- Taldearen erritmora egokitu.
- Bestearen nahia errespetatu.
- Txandak errespetatzen ikasi.

Hiztegia:

- Gauza bakoitzari dagokiona zuzen esan, eta egoerak bere zehaztasun guztiarekin ezagutu (behiak jetzi, behiaren errapea, marmita, azala txigortu, landatu, erein, aitzurra, gorotza...).

Mugimenduekin lotutakoak:

- Ibilaldiak egin.
- Eskuaren erabilera zuku ateratzekoan, barazkiak zatitzekoan, arrautzak irabiatzekoan, arrautzak puskatzekoan, arrautzak zuritzekoan, mandarinak, platanoak eta abar zuritzekoan...



EZAGUERA MATEMATIKOAK

Oharmen eta erabilera egokiak landu: sailkapenak, identifikazioak, kuantifikazioak, kantitateak, kopuruak, espazioa, formak, eduukiera, tamainak...

ARDURA ETA OHITURA-ARAUAK

- Txandak errespetatu.
- Tresnak zauririk egin gabe erabili.
- Mahaia txandaka jarri.
- Bazkaltzeko eta askaltzeko garaian erantzun egokia landu.
- Egokiak diren tresnak erabili (koi-lara, sardexka...)
- Baratzeak errespetatu.
- Errepideko arauak errespetatu.

Ebaluazioa

- Prozesuak izango dira bereziki kontuan hartuko direnak. Edukiak nola barneratzen diren, barneratze bidean dauden edo ez, haur bakoitza zer ari den lortzen, adin horretarako espero denarekin bat datorren...

- Ekintza horietan haurrek azaltzen dituzten jarrerak eta estrategiak arreta handiz aztertuko ditu irakasleak.

- Adin horretan jarduera pertsonalak talde bizitzan nola txertatzen diren ere kontuan hartzeko beste atal bat izango da.

- Familien parte hartze eta inplikazio maila.

- Auzoan, bisitatutako baserrietan, dendetan... izandako jokaera eta eragina.

Menuak JANARI EKOLOGIKOekin egiten hasi gara

Iaz, ekainaren hasieran, proba gisara hasi ginen, eta uztaileko bigarren astean bukatu zen proba denboraldia, ikasturtea bukatzearekin batera. Proposamena Biolur Gipuzkoako Nekazarien Elkarteak eta Behemendi Mendi eta Nekazarien Elkarteak egin zioten partzuergoari. Kontuan hartu behar da otorduak bertako sukaldean prestatzen direla, eta, beraz, haur eskolan jarduteko eta eragiteko aukera zegoen.

Behemendik eta Biolurrek azterketa egin zuten partzuergoarentzat, hiruhilabeteko menuak aztertuz. Gurasoei gai horren gainean egindako gal-

deketaren emaitzak zuzendaritza batzordean aztertu ziren, eta, ondorioz, urtarilean proiektua martxan jarri zen.

Haurrak oso ongi moldatu dira janari berrietara, inguruko herrietan ekoiztako elikagaiak jaten dituzte, eta bertako janariak beharrei erantzuten ez dietenean, kanpokoak ere kontsumitzen dira.



Palestina: hezkuntzaren garrantzia



Lana Khaskia palestinarra

Martxoan, Euskal Herrian izan da Lana Khaskia palestinarra. Berarekin hitz egiteko aukera izan dugu hango hezkuntzaren gainean.

Garrantzi handia ematen diote palestinarrek ikasketei, ondorioz, arabiar herrien artean alfabetze maila altuena omen du Palestinak.

Arabiar lurraldeetan, batz bestea, %30eko analfabetismoa baldin bada, Palestinan %10ekoa omen da. Eta herritar gaztetxoaren artean ez dago, jada, analfabetorik.

Azken mendeetako historia

Otomandar Inperioaren probintzia bihurtu zen 1515. urtean, Palestina izenarekin. Otomandarrak Lehen Mundu Gerran garaituak izan ondoren, Nazioen Elkarteak Britainia Handiari eman zion Palestinaren eta Transjordaniaren agintea.


1947an NBEak Palestinaren Zatiketa Plana onartu zuen, lurraldea bi estatutan banatzea ekarri zuena. Judu gutxiengoari lurraldearen ia %60 eman zitzaion. Azken horiek, plana onartu zuten, baina arabiarrek ez. 1948an, ordea, israeldar estatua sortu zen eta berehala, bost estatu arabiarren eta Israelen arteko gerra hasi zen. Amaitzean, Zisjordania eta ekialdeko Jerusalem Jordaniaren agindupean geratu ziren eta Gaza Egiptorenean. Ordurako Israeliek "legezkoa" zena baino %26 lurralde gehiago okupatua zuen. Biztanleria arabiarren %70 bere etxea uztera behartuak izan zen, errefuxiatu bihurtuz.

1967an, Sei Eguneko Gerran, Israeliek Gaza eta Sinai penintsula kendu zitzaion Egiptori, Zisjordania eta ekialdeko Jerusalem Jordaniari eta Golan Gainak Siriari. Egiptok 1979an, amore eman zuen Gazari buruzko bere eskaeran eta Jordaniak 1988an, gauza bera egin



zuen Zisjordaniari buruzkoan. 1967tik, Zisjordania, ekialdeko Jerusalem eta Gaza Israelen okupazio militarpean daude.

1991n bake elkarrizketak hasi ziren, 1993an Osloko Akordioetan amaitu zirenak. Bertan, Gazan eta Zisjordaniaren zati batean estatu bat eraikitzea erabaki zen. Pixkanaka, Israel okupatutako lurraldeetatik irtetzen hasi zen, ardura Palestinako Aginte Nazionalari utzita. Hala ere, bake prozesua 2000.



urtean zapuztu zen, Ariel Sharon, ehunka poliziak babestuta, Meskiten Zelaigunea bisitatu zuenean, biztanleriaren eta bertako Elizaren oposizioa mespretxatuz. Probokazio horrek bigarren intifada ekarri zuen.

Gaur egungo egoera

Gaur egun, oraindik, palestinarrak atzeritarrak dira beren lurtean bertan, Israelgo estatuak estatu librea eta subiranoa sortzeko aukera ukatzen dielako. Gazan eta Zisjordanian bizi diren ia lau milioi palestinarrak, Israelen bizi den ia milioiak eta errefuxiatuta bizi diren bost milioitik gorakoek, guztiak, beren bizimodua askatasunez aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen jarraitzen dute.

Nolanahi ere, AEBek ematen dioten laguntzari esker, Israelek ez ditu Nazio Batuen ebazpenak betetzen. Izan ere, askotan eskatu diote 1967ko mugetatik alde egiteko eta okupatutako lurraldeetan finkatutako kolono juduen kokaguneak desagiteko.

2001eko irailaren 11ren ostean, Ariel Sharonen gobernuak eraso militarra jarri zuen abian, Palestinako jendar-tearen oinarri ekonomiko, sozial eta politiko guztiak behin betiko suntsitzeko asmoz.

Hala ere, herri palestinarra ez da makurtu, bere oinarrizko eskubideak behin eta berriro zapaltzen dituztela ikusten ohituta badago ere.

Hezkuntza Sistema

Palestinarrak garrantzi handia ematen diete ikasketei, baina zaila da baieztapen hori estatistiken bidez zenbatzea, errefuxiatu asko baita.

Bestalde, zientzialari eta tekniko gutxi egotea eragozpen handia da garapen ekonomikorako. Palestinako Hezkuntza Ministerioa ofizialki 1994an sortu zen eta haren lan nagusia zera da: okupazioaren ondorioz jasotako esko-

la publiko eta pribatuena sistema bateratzea. Adibidez, Zisjordaniako haurrek programa jordaniarrari jarraitzen diote eta derrigorrezko ikasketek bederatzi urte irauten dute; Gazakoek, berriz, programa egiptoiarrari jarraitzen diete eta ikasketek hamar urte irauten dute.

Lana Khaskiaren esanetan, eskola gehienak mistoak dira, Gazako eskola batzuk izan ezik.

Munduan ez da gertatzen hain jende gutxiri hainbeste jurisdikzio desberdin ezartzea. Gaur egun, benetan, palestinarra izango den lege-corpusa egin nahian ari dira lanean. Horrek, asko lagun lezake herriaren kohesioan, eta, Hezkuntza Sistema hobeto antolatzeko aukera eskainiko luke.

Oro har hartuta, nesken eskolaratze tasa lehen mailako irakaskuntzan mutilena adinakoa da; baina bigarren eta goi mailako irakaskuntzetan nesken eskolaratze tasa baxuagoa da. Lurraldeetako unibertsitateak pribatuak dira, eta lizeo gehienak ere bai. Ministerioa lankidetzan estuan aritzen da UNESCO-rekin. Erakunde horrek aspalditik laguntzen dio, eskola-sistema arrazionalizatzeko eta eskolen eraikuntza finantzatu ahal izateko, eskola horiek ezinbestekoak izango baitira diasporatik datozen familientzat. Beste lehentasun oso garrantzitsu bat: eskola-programa

komunak egitea, bereziki Palestinako historiari buruzkoa; izan ere, azken jakintzagai hori debekatuta egon baita urtetan.

Euskal Herritik begira

Gerra batean bi alderdiek nabiz egiten duten galdu, Palestinako gerra urtero egiten zaigu azaldu. Basamortuko lur idorretan odol errekek zabaldu. Gerran inor ez da salbu jende aberatsa salbu. Arrazoiaren printzipioak egin dituzte zapaldu: gerrarik inork ez du nahi baina bakerik inork nahi al du? (bis)

Agin Rezola Laburu bertsolariak ikasle garaian idatzi zuen.

Doimua: Munduan libre bizi izatea



Euskal Herriko eskola batean, Palestinaren egoera azaltzen.



Lana Khaskia palestinarra Leire Nalda euskaldunarekin, Hernanin.

Gizonentzat eta emakumeentzat gorputz heziketak era berekoa izan behar al du



Maisua ikasleen idazmahaien arte-tik pasatzen ari da. Ikasleek, berriz, automatikoki luzatzen dituzte besoak, eta hark ematen dien orria usaintzen dute. Beso horien artean pasatzen den heinean, maisuaren begirada aditua nora ezean dabil, urduri. Irakasleak badaki, behingoagatik, hobe dela autore garrantzitsuak albo batera uztea eta arreta hurbilekoan jartzea, bizitakoan; hau da, bere esperientzian oinarritzea. Ikasleen aurrean bere grinak eta beldu-rak agerian uztea, biluztea dela onena. Ekintza txikienek zer garen nola salatzuten duten ere erakustea. Isiltasuna nagusitu da gelan, eta ikasleen begiradak maisuaren iraganeko bizitza irakurtzen hasi dira:

“Nire soinketako irakaslea gizon txiki, indartsu eta autoritarioa zen. Urrutitik begiratzen zion taldeari, aginduak betetzen genituela ziurtatzeko. Kontrolatzeko. Haren gorpuzkera zuzena nabarmen egiten zen. Bularraldeari puztuta eta sabelari eusten zien. Baita oinez zihorean ere, beti tente. Gorputz jarrera hori bere lanaren ardatza zen, izateko modu baten eta lan egite-



Joseba ETXEBESTE

EHUKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN
ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA

ko modu baten idealizazioa. Irakasgaietan trebeak ginenoi konplizitatez so egiten zigun. Guk ere arau horiek barneratuko genituela espero zuen, haren antza izatera ailegatuko ginela, hain zuzen. Bazuen prestakuntza akademikoa, ez zen inozoa. Zuzentasunez hitz egiten zuen, Jose Antonio Aginte Eskolan ikasi zuen, garai hartan han eskurtzen baitzen Gorputz Heziketako titulaziorik gorena. Haren eskolak gimnastikako eredu teknikoetan oinarri-

tzen ziren: egitura eta mugimenduen zurruntasuna, eta egiteko unearren kontrola. Ilaretan jartzen gintuen, eta, hark agindutakoan, zaldiaren gainetik egiten genuen salto, hankak eta besoak zabaldu eta ixten genituen, 50 metroko korrikaldiak egiten genituen... Eta txilibituaren aginduarekin amaitzen ziren eskolak, sermoirik eta moralkeriarik gabe. Bakoitzaren errendimendua kontuan hartua zuen ordurako. Ohar ikusezin haiek eta kirol marka gutxi bartzuen oroipenak balio zuten, erreferentzia zehatzik ez zuen ebaluazio gorabeheratsua egiteko. Eskertzekoa zen gure arteko distantzia izoztua are gehiago ez handitzea mugimendu frankistaren propaganda ideologikoa zabalduz.

Diktadorearen heriotzaren osteko urte nahasi haietan, emakumezkoen eskola batekin partekatzen genuen Iruñeko Ruiz de Alda pabiloia. Neska talde hura unitate bakar bat balitz bezala mugitzen zen, erretirata zegoen militar baten aginduetara. Militarra txikia eta sabel handiduna zen. Zahar itxura zeukan, baina arin mugitzen zen. Guztia ondo prestatuta zegoen, bidean guru-

tza eta nahas ez gintezen; neskek elastiko zuria eta feltrozko galtza urdinak jantzen zituzten. Guk, aldiz, galtza motz gorriak eta alkandora zuria. Ez genuen sekula neskekin hitz egiten, eta haiek gurekin ere ez, ez baikenuen horren gertu egoteko aukerarik izaten. Ondo gogoan dut gizon hark aldaketatik helduz nola laguntzen zien neska haiei, itzulipurdia hobeto egin zezaten. Aldageletan, izerdi patsetan, nire ikaskideek militar erretiratuari egiten zizkioten kritikek eta mespretxuzko jarre- rek islatzen zuten ukatzen zitzaigun ha- rreman hark sortutako frustrazioa.

Urteen joan-etorriak bi gizon haien lankide bilakatzera eramán ninduen. Horrela egin nintzen, txilibitua ahoan, umeen bizitza –orduan neskek eta mutilak banatuta– gidatzen zuen profesio- nal horietakobat. Garai batean gimnas- tika zena, gorputz heziketa bilakatu zen. Gaztetasunak ematen duen arinta- sunaren ondorioz, gauzak aldatzea lor- tuko genuela uste genuen; gorputz he- ziketa ezinbesteko atal bihurtuko zela hezkuntzan. Baina... zein tresnarekin egin behar genuen aldaketa? Jasotzen ditugun unibertsitate ikasketak azter- tzen baditugu, ohartuko gara giza gor- putzaren ezagutza sakonago bati esker eta kirol teknikak ahalik eta modu atse- ginenean erabiliz lortzen dela hori. Eta koordinaziorako, hazkuntzarako, biz- karrerako, estreserako ona edo txarra

izan daiteke hori; errezetak egiten di- tuen sendagileak bezala, motrizitatea- ren alorreko profesionalok biztanleen- tzat egokiak diren kirol ekintzak kude- atzen ditugu. Gaitasun profesionala xarma pertsonalaren arabera eta pro- posatutako ariketen eta pertsonaren osasunaren arteko loturaren arabera ere neurtzen da. Medikuntzak bultza- tuta, biztanleen gaitasun motorrak neurtzen dira, eta gorputz heziketako irakasleei jauziak, erresistentzia eta abiadura neurtzeko taulak ematen zaizkie, gaitasun bakoitzari dagozkion batez besteko neurri egokiekin. Gazte batek barra bati helduta eta kokotsa mugitu ere egin gabe 45 segundo igaro- tzen baditu, nota bat jartzen zaio: zen- bat eta denbora gehiago irauñ, orduan eta nota altuagoa. Akatsik gabe! Modu arrazionalen! Ebaluazioaren arazoa konponduta: neurketak egiteko taula horiek dira irtenbidea, zehaztasun han- diko kalifikazioa jar dezakegu. Baina are gehiago aurreratu dugu. Gizonen eta emakumeen gorputzak ezberdinak direnez, bi neurri bereiz ditzakegu, bi baremo, sexu bakoitzerako bat. Osa- suntsua dena, normala dena, ona de- na... zabaldu egiten da ikastetxeko pa- tioan eta, horrela, gizonen eta emaku- meen arteko ezberdintasunek ez dute eraginik bikaintasunean: Olinpiadeta- ko logikari jarraituz, marka bat sexu ba- koitzerako”.

Medikuntzak bultzatuta, biztanleen gaitasun motorrak neurtzen dira, eta gorputz heziketako irakasleei jauziak, erresistentzia eta abiadura neurtzeko taulak ematen zaizkie, gaitasun bakoitzari dagozkion batez-beste-ko neurri egokienekin.




Ikasleek buruak jaso dituzte, eta murmurioa nagusitu da, eztabaidari hasiera eman dion galdera entzun oste- an:

–Gorputz heziketa hori al da gizo- nen eta emakumeen arteko boterearen oreka bilatzen duen gizarte aldaketa- ren ardatz nagusia? Hori al da hezkide- tzari buruz dugun ideia?– galdetu du i- rakasleak.

Athleticeko nesken taldean joka- tzen duen ikasle on batek berehala har- tu du hitza:

–Uste dut testu horretan kontatzen den istorioak euskal jendarteaz azken urteetan gertatu den aldaketa islatzen duela. Garrantzitsua da neska-mutilak eskolan elkarrekin egotea, eta baita eu- ren artean dauden aldeak onartzea ere. Eskola sistema genero ezberdintasun horiek ebaluatzeko gai izatea ona da, bestela, emakumeak bigarren mailan egotera behartuta egongo baikara beti.

–Horrek, baina, ez du oinarri sen- dorik! –erantzuten dio aztoratuta Na- txok. Ni institutura joaten nintzenean, neska batzuek ez zuten inolako intere- sik izaten gorputz heziketan, eta ez zi- ren batere saiatzen. Horrela, ezarrita zeuden neurrien arabera inondik inora merezi ez zituzten notak lortzen zituz- ten. Bien bitartean, guk ahalegin han- diagoa egin behar genuen, lorpen txi- kiagoa eskuratzeko.



Zer nolako interesa dauka gazte batek noraino jauzi egiten duen, zenbat neurtzen duen edo zenbat pisatzen duen neurtzeak? Jar dezagun arreta gazte horrek ikasten duena ebaluatzen. Gakoa ezagutza horrek eguneroko bizitzan zein interes eta erabilera duen jakitean dago.



Irakasleak ez du sexuen arteko gatazkarik nahi gelan, eta eztabaida bideratzen du:

–Eta zer egin dezakegu, zuen ustez, kontraesan horiek gainditzeko? Eskolan hori egiten duen irakasgai bakarra gara. Nola saiheuts dezakegu gorputz heziketan neurketa bikoitza erabiltzea?

–Ebaluazio probak alda genitzake. Gorputzaren gaitasuna neurtzen saiatu beharrean, beste zenbait gauza neurtzen saia gintezke ?erantzun du gazteak.

–Eta zer neur dezakegu? –galdetu die irakasleak unibertsitateko ikasle gazteei. Baina ez dago erantzunik, ez da horren erraza, eta irakasleak badaki hori.

–Bada, gorputzaren gaitasuna neurtu beharrean, adimen motorra neurtzen saia gaitezke –azaldu du irakasleak–. Zer-nolako interesa dauka gazte batek noraino jauzi egiten duen, zenbat neurtzen duen edo zenbat pisatzen duen neurtzeak? Jar dezagun arreta gazte horrek ikasten duena ebaluatzen. Gakoa ezagutza horrek eguneroko bizitzan zein interes eta erabilera duen jakitean dago. Gorputz heziketako jokoak, kirolak, ariketak ikasi egiten dira; logaritmoak eta Arkimedesen teorema ikasten diren bezalaxe. Mutiko batek ez daki igeri egiten, eta eskolan

ikasten du. Neska batek ez daki patinatzen, eta ikaskideen laguntzarekin ikasten du. Horixe da gorputz heziketaren gakoa: irakatsi beharreko zeregin motorren aukeraketa.

Irakasgai honetan, gazteak hausnartzen ohituta daude, erantzunak zailtzan jartzeko ohitura dute. Badakite irakasleak ez duela sekula erantzun osoa ematen; korapiloa askatzen lagunduko dien hariaren punta baino ez diela ematen.

–Baina adimen motorrak ez duu bat-batean konpontzen gizonen eta emakumeen arteko banaketaren arazoa –dio Natxok–. Ni nahiko kaskarra naiz futboleant, eta Nekaneri, Athleticen jokatzen arren, zaila egingo zaio niri baloia kentzea edo buruz errematatzea. Emakumeek ere jokatzea nahi badugu, behartuta gaude bi futbol liga egitera, bata gizonentzat, eta, bestea, emakumeentzat.

–Bai, esaten duzun hori egia da. Baina ba al zenekien orain dela gutxira arte AEBn bi beisbol liga zituztela? Bata beltzentzat eta bestea, aldiz, zurientzat. Baina eskubide zibilen aldeko ekin-tzaileek arraza bereizketarik gabeko liga bakar bat aldarrikatu zuten. Emakumeak eta gizonak ez al gara gai bat eginda hori guztia aldatzeko?

–Baina, baremo edo neurriekin, hasieran bezala gaude –dio Nekanek–. Adimen motorra kontuan hartzeak ez

ditu gizonen eta emakumeen gaitasunak aldatzen: gizonezkoek azkarrago egiten dute korrika, gehiago pisatzen dute, altuagoak dira, azkarragoak. Neskok ezin dugu ezer egin, haien aurka lehiatzen garenean. Gizonezkoen kiroltan, konpartsa hutsa izatera kondenatuta gaude, lehiaketak banatzen ez baditugu!

–Bete-betean asmatu duzu! Gizonezkoen kirolak gizonak loriatzeko kultur sorkuntza baino ez dira. Ezin al ditugu asmatu gizonak eta emakumeak parekatuago egongo diren beste jolas edo kirol batzuk? Horrela, sexua alde batera utzita, gaitasun indibiduala litza-teke irabazlea bereiziko lukeena. Edo benetan uste duzue mutil bat neska bat baino auto gidari hobea dela? Besoetako indarrak eta testosterona mailak gizonezkoak emakumeak baino gidari hobek bilakatzen dituela uste duzue? –irakasleak ia-ia entzun egiten ditu ikasleek buruan darabiltzaten ideia berri guztiak.– Nekane, zerk egiten du auto gidari bat bestea baino hobea?

–Adimen motorrak, erabakiak hartzeko duen gaitasunak –erantzun du Nekanek, guztiz ziur, orriak karpetan jasotzen dituen bitartean. Txirrinak dio amaitu dela gaurko eskola, eta ikasleak mundu bidegabera itzuli dira gorputz hezkuntza bi ahoko arma dela jakinda: mundua berregin edo aldatu dezakeen esku-hartzea.



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

apirila
berriak

Irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak



Euskal Herriko Udako Ikastaroen baitan *Irakurzaletasuna sustatuz: Haur eta Gazteentzako liburuen hautapena eta balorazioa* mintegia egingo da uztailaren 26an, 27an eta 28an Donostiako Miraman Jauregian. Galtzagorri Elkarteak antolatuta Itziar Zubizarretak gidatuko duen mintegia praktikoa izango da erabat. Orotara 30 ordukoa izango da eta euskara hutsean eskainiko da.

Mintegian parte hartu nahi duenak apirilaren 23ra arte eskatu ahal izango du beka. Gainerakoan, izena eman nahi duen orok 70 euroren truke egin ahal izango du maiatzaren 31ra arte. Ekainaren 1etik aurrera izena ematen dutenek, ordea, 84 euro ordainduko dituzte.

Egitaraua, egunez egun

Uztailak 26

19:15etan: Janneth Chaparro Fundalecturako kideak eta Gemma Lluch, Valentziako Unibertsitateko kideak *Comités lectores: Organización y funcionamiento* hitzaldia eskainiko dute.

Ondoren, Itziar Zubizarreta Galtzagorriko kidea eta Gurutze Aldabalde-tereku EHUko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako eta Galtzagorriko kidea eredu narratiboen gainean ariko dira hizketan.

Uztailak 27

Lehen saioa: Chaparrok eta Lluhek *Criterios generales para seleccionar y clasificar libros de calidad* gaia jorratuko dute.

11:30ean: Ibon Egaña EHUko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako eta Galtzagorriko partaideak eta Itziar Zubizarretak *Eredu poetikoak: tradiziozko generoak eta modernoak* landuko dituzte.

Uztailak 28

Lehen saioa: *Gaztetxoak literaturansartzen: saio literarioak. Ibilbide literarioak I* izenburuko saioa eskainiko dute Marijose Olaziregik, EHUko Letren Fakultateko eta Galtzagorriko kideak eta Aldabalde-terekuk.

11:30ean: Aldabalde-terekuk berak eta Elena Oregi Donostiako Udal Haur Liburutegiko arduradunak *Ibilbide Literarioak II: Bibliografía* gaia jorratuko dute.

16:30ean: mintegiari amaiera eman- go dion mahai-ingurua: *Criterios de selección de libros*.

Informazio zabalagoa nahi izanez gero EHUko Udako Ikastaroen web orrialdera (<http://www.sc.ehu.es/cursos-verano>) edota 943219511 telefonora jo beharko du. Galtzagorri (943471487) deituta ere eskura daiteke.

Euskarazko haur eskola eskatu dute Burlatan

Heldu den ikasturtean haur eskola zabaltzekoa da Burlatako Udala (Nafarroa). Askatasuna eta Ermitaberri guraso elkarteek euskarazkoa eta publikoa izan dadin eskatu dute.

Burlatako udalbatzak 0 eta 3 urte arteko haur eskolaren kudeaketa enpresa pribatu baten ardurapean uztea onartu zuen martxoan. Hala ere, oraindik ez dute zehaztu zein enpresa arduratuko den egiteko horretaz. Guraso elkarteek beren aldarrikapenean, ELA, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuen babsa dute. Richar Sanchez Burlatako Udaleko ELAko ordezkariaren irudiko, «oso larria» da Udalak haur eskolaren kudeaketa «pribatizatu» izana, «horrek langileen lan baldintzak asko okertuko dituelako».

Bestalde, eskola berriak izango duen hezkuntza ereduarekin ez datoz bat gurasoak. Izan ere, haur eskola berriaren hezkuntzaren oinarritzko hizkuntzagaztelania izango da; euskara, ingelesarekin batera, hizkuntza osagarri izatea onartu baitu udalbatzak. Burlatan euskarazko haur eskola publikoa erdietsi ahal izateko, guraso elkarteek lan talde bat eratu dute mobilizazioak antolatzeko.



Itxialdiak Leioako campusean



Itxialdiak egin zituzten martxoan EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campuseko hiru fakultatetan (Bizkaia). Arte Ederretakoan, Gizarte Zientzietakoan eta Zientzietakoan.

Bolognako prozesuaren aurka ari dira Arte Ederretako ikasleak. Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremuaren ezarpenak «globalizazioa, pribatizazioa, merkantilizazioa eta garestitzea» ekarriko ditu unibertsitateetara, ikasle-estuz, eta horren aurka ari dira protestan. Bolognako prozesua «inposaketatzat» hartu dute. Itxialdiaz eta infor-

mazioa zabaltzeaz gainera, bestelako ekintzak ere egin zituzten ikasleek: hitzaldiak eta performance-ak, besteak beste. Hona arte ederretako ikasleek kaleratutako testua:

“Arte Ederretako ikasleok Bolognarako dakarren plan berriaren inposaketaren aurrean, ezezko bortitza adierazi nahi dugu. Inposaketa bat den momentutik, badakigu zer dakarren horrek: gure iritzia eta beharrianak alde batera utzi eta soilik beraien interesetara bideratzea plan hau. Horretaz gain, bezkuntza globalizatu bat ezartzeko helburua duen plan berri honek, bezkuntzaren pribatizazioa du ondorio

nagusi, bonetarako eredu yankia erduztat harturik.

Etorkizunean honen ondorio nagusiak besteak beste, kredituen garestitzea, bautzako murrizketa eta gure ikasketak ordu ez presentizaleetara bideratzea izango dira, horrek dakarren guztiarekin. Saldu nabi diguten plan berri honek, gure ikasketen merkantilizazioa besterik ez dakar. Hori izanik helburu bakarra gure ikas nabi dugunari garrantzia eman beharrian, gure ikasketak lan munduari begira baino ez dizkigute bideratzen.

Beraiek eskaintzen diguten desinformazioak gure mesfidantza elikatzen du. Horregatik guztiagatik eta jakinda gauza batzuk bidean uzten ditugula, egungo eta etorkizuneko ikasketa ereduaren aurka agertzen gara”.

Gizarte Zientzietako Fakultatean bestelako eskakizunak dituzte. Fakultatean ez da lekurik ikasleak biltzeko eta ekintzak egiteko, itxialdian parte hartzen ari diren ikasleek esanetan. Leku hori eskatu diote dekanuari, eta sinadurak ere aurkeztu dituzte.

Zientzietako Fakultatean, berriz, euskarazko eskaintza handitzeko eskaera eginez batu dira ikasleak, eta horregatik daude itxialdian.

Euskal Eskola Publikoaren jaiak: Bideo lehiaketa

Denon Eskola Arabako gurasoen elkarteak, Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren baitan *Instia* goiburuko bideo lehiaketa antolatu du. Helburua, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat institutuak irudikatu, islatu eta sustatuko dituzten bideoak sortzea da. Bide batez, ikasleek ikuspuntutik egindako eskola publikoaren inguruko bideo labur eta orijinalen produkzio eta hedapena sustatuz.

Parte hartu nahi duen ikastetxe bakoitzak bideoak sailkatuko ditu eta ondoren egokiak direnak Denon Eskolara bidali. Asmoa aurkezten diren bideoekin muntai bat egitea da, ondoren, ekainaren 6an Amurrioren egingo den Euskal Eskola Publikoaren jaietan irakurkorrean proiektatzeko.

Nahi duen ororentzat lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta izena emateko bete beharreko orria www.denoneskola.org webgunean daude eskuragarri.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen martxoaren eztabaidak utzi diguna...

>>> "Inposaketarik Ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza" goiburupean, mobilizazio egunea izen zen joan den martxoaren 13an, Bilbon, EHBE Euskal Herria Bere Eskola herri ekimenak deituta. Horretarako arrazoi nahikorik badagoela uste al duzu?

> Noski baietz!

Hezkuntzaren esparruan hartzen ari diren erabakiak ez datoz bat gure herriak, Euskal Herriak, behar-beharrezkoak dituenekin normalizazioa bada helburua. Iparraldean, Nafarroan eta EAEn gure herritik kanpo hartutako erabakiek diseinatzen dute hezkuntza. Eta, guk, gure erabakiak hartu behar ditugu etorkizuna hobetzea nahi badugu behintzat. *Felix Aldanondo*

> Erosotasuna

Mila arrazoi daude bai. Baina erantzuna ikusita, erosotasuna nagusitzen ari dela nabaritzen da. Lehen munduan zaila egiten da etikari eta kontzientziari kasu egitea. Horrela, erosotasuna nagusitzen da, eta erosotasun berak etika eta kontzientzia desitxuratzen ditu, pertsona bezala pobretuz. Eskerrak kontzientzia eta sentimendua duen jendea badagoela oraindik, mundu hobea nahi duena. Horiak dira itzaropenerako leihoa irekita mantentzen dutenak. Gora zuek! *Mikel. A*

> Motibo ugari dago

Manifestazioa egiteko arrazoi nahikorik ote dagoen? Noski baietz! Gauza bat da bitartekoak jartzea eta ahalegina egin ondoren beharko liratekeen emaitzak ez jasotzea. Beste bat, berriz, bitartekoak ez jartzea eta, gainera, herritarrek ahalegina egiten dutenean trabak jartzeari ekitea. Horixe da Nafarroan, Iparraldean eta EAEn egunero ikusten duguna. Horren guztiaren aurrean, manifestazioa ezinbesteko tresna da herritarren kexa agertzeko eta neurriak har daitezen exijitzeko. *Miren. A*

> Manifestazioa bai, lan iraunkorra ere bai

Ados nago manifestazioa egitearekin, horren aldeko arrazoi ugari idatzi dira, jada. Askotan ikusi dugu herri honetan, manifestazio egiten direla eta horretan geratzen dela, salaketa hutsean. Ordua da, nire ustez, modu iraunkorrean antolatzeke eta gure eskola gorpuzten jarraitzeko. Bada nahiko eredu aurrekoek irakatsi dizkigutenak, gure herrian sortuak eta garatuak. Kanpokoekin zain, administrazioek hartuko dituzten erabakien zain geratzen gara, maiz. Garbi ikusi dugu hori ez dela bidea. Eta herritar sentisibileok, hezkuntza hobetu nahi dugunok, etorkizun maitagarriagoa nahi dugunok egin beharko dugu aurrera berriro ere, ezin baitugu administrazio lapurren, irakasle eta sindikatu apoltronatuen esku utzi gure herriaren etorkizuna. Lanera, bada! *Lore Mendizabal*

> Hobetu beharra dago

Manifestazioa ongi egon zela iruditzen zait. Oso ongi irudikatuta zegoen baina aurretik hobeto kokatu behar da halako ekitaldia. Egia da, batek dion bezala, jendea nahiko eroso dagoela. Hala ere, ideiak argi badaude, herritarrek ulertzeko erraza badira eta hasieratik eragile multzoa elkartzen bada, emaitzak onak izaten dira. Pentsatzeko eta neurriak hartzeko garaia da. Zaila bai, baina poliki bada ere, ahalik jende gehienarekin kontaktzen ahalegindu behar dugu. Zorionak egindako lanarengatik. Baina, zalantzarik gabe, hobetu beharra dago. *Leire Jauregi*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Euskara hautatzeko askatasuna Ielapean, Nafarroako eremu ez euskalduneko herritarrek euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea aldarrikatu zuten Iruñean. Zuk zer hausnarketa egiten duzu?

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Iputargiak paradisuari

Mariasun Landa / Maite Gurrutxaga
ELKAR

Mundua mundu izaten hasi zen lehen egunetik, animaliak nor-gehiagoka hasi ziren munduaren jabe zirelakoan. Nor handiago, nor azkarrago, nor ederrago, nor indartsuago... Adan eta Eba agertu ziren arte, orduan iskanbilak bukatu ziren haien artean. Amak alabari kontatutako istorioa bildu du Mariasun Landa idazleak. •



Arritxu eta Mago Zuriaren Anaidia

Itziar Madina / Leire Urbeltz
TXALAPARTA

Iturzulogaineko lamiek Arritxuren laguntzaren beharra dute. Lamia guztietan ederrena, Dalan lamia, bahitu du Oihaneko Mago Zuriak berarekin ezkontzera behartzeko. Arritxu da Dalan askatzeko dute itxaropen bakarra. Hala, bada, Ikoti lagunaren eta Ahabi txakurraren laguntzaz, Arritxuk aurre egingo dio Zuriaren Anaidiko buru den Magoari. •



Erraldoi txuria

Sandrine Mounier / Boris Bukulin
GATUZAIN

Haurrentzako eta nagusientzako liburua elebiduna da hauxe. Itsas zabalean, erraldoi bat hor dago, zutik. Xuri xuria da. Egunaz, bere txapel gorri eta gauaz begi handi batzuei esker da ezaguna. Itsas gizon guziek badakite nor den. Estimaten eta errespetatzen dute. Itsas barneko harkaitzei untzien kroska ferekatzea gustatzen zaie. Erraldoi zuria hor egingo ez balitz... •



Belar-olatueta

Karlos Santisteban / Iban Izagirre
EREIN

Anai-arreba batzuen istorioa kontatzen du ipuinak. Surfzale amorratua da anaia, eta arrebari surf egiteko taula oparitu dio. 'Belharrak' izeneko olatu erraldoi bati buruz hitz egiten dio, sei urteko arreba txikiari. Eta neskatoa belar artean jolasten hasiko da, aitak moztutako belar-metara igota, anaiak aipatutako olatu erraldoia hura zelakoan. •



Josu dukatiren proposamena

Pako Aristi
EUSKALTZAINDIA - BBK

Lan honekin irabazi zuen Pako Aristik 2008ko Toribio Altzaga antzerki saria. Ertzaintzak ETako buruzagi bat atzetan du. Galdeketa gelan daude. Bi gizonak aspaldiko ezagunak dira: institutu garaian lagunak izan ziren. Biak neska bera maite bazuten ere. Hogeita bost urte geroago koartelean gertatzen dena ez da galdeketa soila izango. •



Ibiltzen

Bizkaiko Gurasoen Elkarte
BIGE

Gizarte sareak, gatazken konponbidea, ikastetxeetako jangela zerbitzuak, hizkuntza ereduak, eskola txikiak, diagnosi azterketen emaitzak... Gai ugari eta hamaika esperientzia bildu ditu BIGE Bizkaiko Gurasoen Elkarteak *Ibiltzen* aldizkariako udaberriko alean. Formatu digitalean ere eskura daiteke www.bige.es webgunean. •

... nora joango gara?

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Itsasontzi baten...

Garai bateko itsasontziak ezagutzeko, piratak bezala nabigatzeko, egun batez portuko langile bilakatzeko eta itsas korapiloak egiten ikasteko aukera eskaintzen du, besteak beste, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa.

Bilboko Euskalduna ontziolarenak izan ziren lurretan dago kokatua Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa. Orotara 27.000 metro koadroko azalera du; eraikinaren barrukoa ez ezik, kanpoaldea ere erakusketa eremu izugarrai baita. Hain zuzen ere, eremu ireki horretan ikus daiteke museoko gauzarik garrantzitsuena: itsasontziak. Museoaren barruko aldean, berriz, itsasadarren inguru fisikoa, itsas merkataritzaren bilakera eta Bilbo aldeko ontzigintzaren garapena ezagutzeko aukera dauka bisitariak.

Kanpoko erakusketa iraunkorra

Kanpoko aldeak 20.000 metro koadro ditu eta garai bateko Euskalduna ontziolako dike zaharrak daude bertan. Besteak beste, hainbat itsasontzi eta Ponpa izeneko etxola eta Karola garabi bitxia ikus daitezke bertan.

Euskalduna ontziola 1900. urteko martxoan jarri zen martxan eta urte bereko apirilaren 1ean Ramon de la Sota jaunaren Goizeko Izarra yate pribatua-



ren konponketa izan zen ontziolaren lehendabiziko lana.

Barruko erakusketa iraunkorra

Eraikinaren barruko aldean dagoen erakusketa Bizkaiak, bizkaitarrek eta historian zehar metatzen joan diren ondasun natural eta kulturek osatzen dute. Lurraldea, nortasuna eta gizarte memoria biltzen dira ondasun kultural eta naturala kontzeptuaren azpian. Horrek darama museoa, hain zuzen, ondare hori berreskuratu, mantendu, ikertu eta hedatzera.

Elementu horiek guztiak hiru esparru handitan banatuta daude:

I. Itsasadarra, itsaso-portua: Bilboko itsasadarra, portu bilakatu arteko ibilbidean izan dituen aldaketak eta be-

re itsas bokazioa aurkezten dira.

II. Itsasadarra, merkatua eta faktoria: Historian zehar Bilboko itsasadarrean garatu diren jardueren inguruko informazioa eskaintzen du.

III. Itsasadarra, ontziola: Itsasadarreko industri jardueran ontzi industriak leku berezia izan behar du daukan garrantziagatik. Itsas museobatean, zer esanik ez!

Ikastetxeentzat eskaintza

Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa, eskola ume eta gaztetxoentzako bereziki prestatutako gela didaktikoa dauka. Ia 100 metro koadroko gela horretan egiten diren ekintzek itsas kultura zabaltzea dute helburu nagusi. Horretarako, haur eta gazteak modu diberts-

garrian hurbildu nahi dituzte arduradunek itsas kulturara: sormena, taldeko lana eta elkartasuna bezalako balioak oinarritzat hartuz. Etapa bakoitzerako hainbat ekintza prestatuz ikastetxeentzako hezkuntza programa zabal dute:

Ontziak

Haur Hezkuntzako umeei zuzendua (3-5 urte). Tailer honen helburua, haurrek beren ingurunea ezagutzea da, itsasoa eta itsasontzien mundura hurbilduz. Marinel bihurturik, haurrek izkutuko enigma bat aurkitu beharko dute, museoan gordeta dauden altxorrak ezagutzen dituzten bitartean.

Piratak bezala nabigatzen ikasi

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko umeei zuzendua (6-8 urte). Ekintza honen bitartez, gaztetxoak nabigazioaren abentura liluragarrian barneratuko dira. Jokoak erabiliaz, gazteak itsasontzi eta nabigazioarekin erlasionaturiko alderdi desberdinetan murgilduko dira, piraten historia ezagutzen duten bitartean, euskal piratena bereziki.



BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

Ramon de la Sota, 1.
48013 BILBO
Bizkaia



Informazio gehiago:

- www.museomaritimobilbao.org helbidean
- Tel: 902 131 000

Portuko langilea egun batez

Lehen Hezkuntzako 2. ziklora zuzendua dago (8-10 urte). Taldeko lana eta ingurunearen ezagutza bultzatzea da ekintza honen xedea. Bilboko Portuan egonik, itsasontzien porturatzeo unean parte hartzen duten portuko ontzi eta lanbideak ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Itsas korapiloak

Itsas korapilo eta sokak belaontzi eta motordun ontzietan ezinbesteko osagaia osatzen dute. Marinel guztiek korapiloak egiten ikasi behar dute ontziratu aurretik; oso baliabide interesagarria baita Tailer honetan ontzietan gehien erabiltzen diren korapiloak egiten ikasiko dute gaztetxoek. Baita korapilo bakoitzaren jatorria eta erabilera ere.

Itsas modelismoa


Oso hedatuta dagoen zaletasuna da miniaturazko itsasontziak eraikitzearena. Modu askotan egin daiteke eta bakoitzak teknika eta herraminta bereziak behar ditu. Tailer honetan, herraminta bereziak erabiliz, itsas modeloak egiteko metodo eta tekniken oinarrizko ezagutza jasoko dute gazteek.

ORDUTEGIA:

- Ostegun eta ostiraletan: 10:00etatik 18:00etara
- Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00etatik 20:00etara
- Astelehenetik azteazkenera: itxita



atzeko atetik



Sara COZAR

AKTOREA

Ordiziako San Ignazio ikastetxean eman nituen nire lehen pausoak. Ikastetxe txikia zen, ikasle gutxikoa, eta hainbat mailako haurrak gela bakarrean geunden. Ondoren, 7 urterekin, Urdaneta ikastetxera eramán gintuzten, eta han jarraitu nuen institutura joan arte.

Oso oroitzapen onak ditut; garai hartako gelakide asko nire lagun minak dira gaur egun. Guztira, 25 ume inguru ginen, bi gelatan banatuta. 3. mailatik 6. mailara arte, andereño bera izaten genuen ikasgai guztietarako (Soinketarako izan ezik). Nire andereñoak Ines zuen izena, eta garai hartatik, eskulanetako eskola orduak oroitzen ditut; josten ere ikasten genuen, ni ez nintzen oso trebea, eta, pazientzia gutxi dudanez –zerbait ateratzen ez zaidanean batez

Eskolako garaiak

ere-, errietaxoren bat edo beste jaso behar izaten nuen lanean jarraitzeko.

Ikasle ona nintzen, berritsuegia agian, baina oso ondo moldatzen nintzen denekin, ikasleekin, irakasleekin, Joxe Mari atezainarekin, Ines sukaldariarekin... Dena gainditzen nuen, eta baita nota onak aterate ere! Baina, ume gehienentzat bezala, niretzat ere unerik gogokoena atsedena zen... Iujuuu! Patiora! Ezin genuen eskolatik irten, baina beti egiten genuen tranpatxoren bat, Juanitaren gozoki dendara joateko. Gero, futboleán, sokasaltoan, esku pilotan... ibiltzen ginen. Pentsatu garai hartan ez zegoe-la ez PSPrik, ez sakelakorik... Zorionez! Batzuetan, eskolak amaitu ondoren, hantxe geratzen ginen, "konkursoak" (lehia-ketak) egiteko. Bakoitzak zekiena egiten zuen, eta nik, normalean, antzerkiak eta playback-ak egiten nituen (agertokia txikitatik gustatu izan zait).

Irakasle batekin asko oroitzen naiz; Ana Rosa Zubeldia zuen izena, oso gazte zela hil zen, istripuz. Nabarmena zen lana gustuko zuela. Gurekin antzerkiak eta antzekoak prestatzen zituen kultur asterako; erabat inplikatzeko. Kulturastea zen, niretzat, ikasturteko asterik onena! Aste horretan, gela bakoitzak, prestatutakoa taularatzen zuen. Nik, noski, beti parte hartzen nuen antzezanetan; behin, opera bat ere egin genuen: Aida. Eta niri Aidaren papera eman zidaten. Hura zen emozioa!

Gustura ikusiko nuke orain! Kar-kar-kar.

Seigarren mailatik aurrera, etxeko lanak ugaritu egin ziren, eta gehiago ikasi beharra iritsi zen. Nire ikasgai gogokoena Literatura eta Gizartea ziren. Baina Matematikan, Kimikan eta gainerakoetan ere oso ondo moldatzen nintzen. Izugarri gus-tatzen zitzaidan laborategira joatea, saltsatan ibiltzea; azken finean!

Ziur baten bat ahaztuko dudala, baina musu bat bidali nahi diet garai hartako nire irakasleei: Martari, Don Angeli, Javi Arrietari, Jose Luisi, Anari, Triniri... denei.

Ez dakit nola dagoen gaur egungo hezkuntza sistema, baina badakit garai hartakoa ona zela. Errespetu handia zegoen irakasleenganako, eta hori guztiz beharrezkoa dela iruditzen zait. Amak beti esaten zidan andereñoa nire "eskolako ama" zela, eta uste dut hori gaur egun galtzen ari dela; gizabiderik, errespeturik eta konfiantzarik gabe, irakasleak ezin du bere lana egin. Baditut hezkuntzan lan egiten duten lagunak, eta, haiek kontatutakoaren arabera, guraso askok berehala defendatzen dituzte umeak, irakasleei errespetua galduta. Zer egingo dute, bada, gero umeek?

Amaitzeko, musu handi bat bidali nahi diet urte horietan nirekin ibili ziren gelakide guztiei; eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet urte horietaz ditudan oroitzapen on guztiengatik. Haiei esker izan baita. Musu bat.



Jolasa da haurrek errealitatea barneratzeko duten biderik baliagarriena.

Imanol Urbietá

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 19. JAIA
ekainak 6 • 2010 • amurrio

"INSTIA" BIDEO TXAPELKETA CONCURSO DE VIDEOS "EL INSTI"



Erakutsi zure "instia", zure ikaskideak, egitea gustatzen zaizuenak, elkarrekin burutzen dituzuen jarduerak... baina batez ere egin bideo orijinal bat.

Osatu talde bat eta grabatu Sakeleko telefonoarekin zure "instia"-ren inguruan erakutsi nahi diguzun guztia. Lortu bideo orijinalena, 3GP formatuan eta minutu batekoa gehienez.

Ez ahaztu www.denoneskola.org webgunean aurkituko dituzun oinarriak irakurtzea.

Zure bideoa aukeratutakoen artean badago ekainaren 6an Euskal Eskola Publikoaren Jaian proiektatuko da.

ANIMA ZAITEZTE eta PARTE HARTU!!

Enseñanos tu "insti", a tus compañeros, lo que os gusta hacer, las actividades que compartís... Sobre todo, haznos un video original.

Forma un grupo y graba con el móvil todo lo que te apetezca enseñarnos de tu "insti", consigue el video mas original e intenta que no dure mas de 1 min., n formato 3GP.

No olvides leer las bases del concurso en www.denoneskola.org

Si tu video es uno de los elegidos, se proyectara el 6 de junio en la Fiesta de la Escuela Pública Vasca.

!!ANIMATE Y PARTICIPA!!



HIK HASI Udako Topaketa Pedagogikoak



Uztailaren 1ean eta 2an,

9:00etatik 14:00etara eta

16:00etatik 18:30era

Laster informazio osatuagoa

Matrikula maiatzean